

"Tubi" txapeldun Euskal Herriko Lasto Jasotze Txapelketan

15. orrialdea

Boisen txapela irabazi ostean, udako torneoa jokatzen dabil Aldai

Boisen (Idaho, AEB) jokatu zan garagarrilaren 30ean eta dimoztarra izan zan txapelketaren lehenengo irabazlea, finalean, Olatz Arrizabalagaren kontra 22-19 gailendu ostean. Udako Master Laboral Kutxa torneoa jokatzen dabil oin Amaia Aldai. **14. orrialdea**



Ikastaroetan izena emoteko aukerea hainbat herritan

16. eta 17. orrialdea

Zeberio eta Arteako jaiak udako herriko azken jaiak

Ha-ta guzti be, asko gertzen da gozatuteko: hilaren 1ean Zeberion hasi eta 16an Artean Merkateagaz amaitu arte, 60 jarduera baino gehiago egongo dira herri bi honeetan eta.

Zeberio bost eguneko jai egitaraua eratu dau abuztuaren 31tik hilaren 4ra. Artean barriz, jaiak 7tik 10era izango dira eta 16an, Merkatea. Jaietako aurreko astegoienean be, hilaren 1etik 3ra Herriko Bentak jai giroko hainbat jarduera prestatu dauz.

Estilo guztietako musikeak, umoreak, janak eta edanak, umeentzako ekintzek eta, orokorrean, jai giroak hartuko dabez Zeberio eta Arteako kale eta plazak lagunartean gozatuteko. **7. orrialdea**



Arteako eta Zeberioko alkateei alkarrizketak



Maiatzeko hauteskundeak bigarren irabazita bagilaren 17an, Aitor Intxaurregak (EAJ-PNV) hartu eban aginte makilea Artean eta beste lau urtez alkate izango da, Zeberion ostera Ekain Gotiri (EH Bildu) pasau eutsan aginte makilea Karlos Idirinek (EAJ-PNV). Arteako eta Zeberioko alkate diran Intxaurrega eta Gotigaz egon da BEGITU. **10. eta 11. orrialdeak**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Alegazinoak aurkeztu deusiez Energia Barriztagarren Planari

Euskal Herria Bizirik Plataformek jakinarazotakoaren arabera, lau mila bizilagun, alkarte eta udalek, alegazinoak aurkeztu dabez Euskadiko Energia Berriztagarren Lurralde Plan Sektoriala atzera bota, eta EAEn dagozan 110 zentral eoliko eta parke fotovoltaikoko proiektuak geldituteko. **6. orrialdea**



BEDIA

Bediarantza zabalduko dau Aparioko harrobia Cementosek

Aparioko harrobia handitu gura dau Cementos Lemoa enpresek, 18,3 milioi tona kareharri aterateko, eta Bediara zabalduko dau. Ustiaketa hori interes komunitarioaren kontra doala aitortzen dauan Ingurumen Sailaren txostena dago baina aurrera aterako da 1990eko baimen bateri esker. **9. orrialdea**



ARRATIA/ZEBERIO

Ordutegi murrizketak osasun zentroetan

Aurtengo udan be, Osakidetzak herri txikietan murrizketak ezarri ditu. Zeberion eta Bedian ez da uda osoan medikurik egon eta gainontzeko herrietan, Igorren eta Lemoan izan ezik, murrizketak egon dira. Hori dala-ta EH Bilduk mozino bat prestatu dau murrizketak osasun sistema publikoa ahultzeko dirala salatuz eta EAJk idatzi bat egin dau kezka adierazoz eta Lehen Arretaren garrantzia azpimarratuz. Oingo hilean jarraituko dabe mozinoak aurkezten eta bozkatzten, Arratiako hainbat herritan.

Zeberion elkarretaratzea egin eben "Zeberio medikua behar du" lelopean, abuztuaren 8an. **8. orrialdea**

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskeronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidea.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXX). Kale berbakunea sustatu guran

ASTE NAGUSIAN HITANOZ:

- Aupa, hi!! Aspaldiko zelan **habil** ba?
- Komeria **dok** ba, herrian ikusi ez eta Bilbon ikusi beharra!!
- Hau **dok** jentetzea hau!! **Etxak** lekuri galtzu bat sartzeako bez!!
- Gero eta gehiago **jabik** urtean-urtean gainera, oin "giriak" be etorten **dozak** eta...
- Hi!! Gose **nok** eta joango **gozak** ogitarteko bat jaten?
- Bai horixe!! Gogoa azartau **dostek**!!
- Gero suziak ikusi eta etxera **ñoak**.
- Ba ni hemen lotuko **nok** bihar arte.

ERETXIA

Pankartea kenduta, ez da arazoa desagertzen



TAMARA BERGANZA
Feminista abolizionista erradikala

Garai zailak bizi doguzala ez dago zalantzarik. Andra edo ume bazara, oindino zailagoak! Gizarte moduan, andrei eta umei lepoa emoten jarraitzen dogu, eta niri ez deusta lasai lo egiten ixten.

Erakundeek, justiziak eta gure interesak eta ondoizatea babesu eta jagon beharko leukiezan organismoek behin eta barriz kolokan ipinten ditue eskubide horreek. Eskubide urraketa handienak urruneko herrialdeetan gertatu dirala uste dogu sarritan, baina ingurura begiratzea besterik ez dogu: 3 andra gitxienez eskolteagaz Arratian, amei seme-alabak indarra baliatuz kentzea tratu txarrak emoten dituan edo abusetan dituan aitari emoteko, biktimarioak mehatxuak beteko dituan bildurrez iges egin behar daben andrak... oro har, ume eta andrak torturatzen dituen ha maika egoera eta ebatzi.

Zer egiten dogu gizarte moduan eta norbanako lez? Zer gehiago egin leike udal batek? Nire ustez, askoz gehiago.

Keinu edo ekintza xume baten bidez, udalak egoera bidebakoak ontzat emon daitez. Igorreko Udalak Irune Costumeroren aldeko pankartea, salaketa legitimo eta zuzenerako pankartea, kentzea agindu dau; eta ekintza horrek auzokide eta bere alabearen birbiktimizazioa dakar. Holango keinuak, biktimei lepoa emotez gainera, euren espazioa lapurtu, eta euren biktimarioei emoten deutsee. Udalak erudugarri izateaz gainera (jardunbide egokien, alkartasunaren eta justiziaren eredu), biktimei laguntzea eta babesu emon behar deutsee.

Pankarten, kartelen, seinaleen eta abarren bidez salatutako eskubidea onartzen ez bada, badirudi arazoa ez dala existiduten. Eta bidebakokeriak ezkutatu arren,

plazaratu gura ez arren, bardin gertatzen dira. Arazoen ezkutetze horrek ekarriko dau, gizarteari gehiago kostauko jakola jokabide horreek identifiketea, eta oindino gehiago normalizauko dituala portaera horreek; hain zuzen be, bere burua feministatzat daukan zuzenbide estadian onartezinak diran portaera larriak.

Udal batek hainbat errazoi emon leikez pankarta bat kentzeako, baina zer adierazoten dau pankarta horrek? Bada, konpondu bako bidebakokeria izugarri hori gure artean dagoala, ez besterik. Udalaren "argudio" horreek atxakiak baino ez jataz iruditzen.

Eskerrak emon beharko geunkez, salaketa-lekuak dagozalako, salatzen dauanik badagoalako, eta horreei esker, ezin dogulako ahaztu abusuak existiduten dirala, euren seme-alabek jasotako tratu txarrak eta torturak salatzeagaitik sufriduten daben amak, lagunak eta auzokoak daukaguzala. Labur esanda, ez gaitzean gizarte anestesiau baten bizi, minaren au-

rrean minik sentiduten ez dauana bihurtu ez gaitzean. Holan bada, ez badeutsegu ahotsik emoten, eta ez badeutsegu salaketa gunerik ixten, ebatzi bidebakoak eta zitalak bermatzen doguz, ontzat emoten doguz eta biktimak oindino gehiago birbiktimizetan doguz, tratu txarra eta abusua betikotuz. Etxeko kontuak etxe barruan konpondu behar dirala esatea lez da! Hori onartezina da, kontu personalaz harago, arazo politikoa dalako!

Udal batek babesu emotez gainera, benetako bardintasunaren eta justiziaren aldeko ekintza feministak bultzatu beharko leukez. Hori ez egitea, matxismo hutsa litzateke.

Herria garbi mantenduteaz berba egiten danean, nire buruari galdera hau egiten deusats: pankartarik bako herria ala tratu txarren egilerik eta konplizerik bako? Gizarte baten, personak eta euren adierazpen askatasuna bermatu behar dira, azken finean, giza eskubideak errespetatu.

Irune eta bere alabearen kasuak oihartzun itzela izan dau nazinoartean, eta 2020tik Espainiako estatuari hainbat bider kargu hartu deusie GAS (SAP gaztelaniaz) izeneko gaitza apliketan segiduteagaitik. GASa ama babesleei tratu txarrak emoten jarraitzeko eta umeak torturatutako beste modu bat baino ez da. Dana ondo dagoanaren planta egiten badogu, injustiziek hor jarraituko dabe, biktimak ez doguz babestuko eta, batez be, ez dira lagunduta edo ulertuta sentiduko, albo batera itxiko doguz, bakarrik, ahaztuta. Oso triste eta etsigarria da ikustea biktima batzuek babesu jasoten dabela estatu nahiz nazinoarte mailan, eta etxean barriz, trabak eta oztopoak!

Mundu justuago bategaz egiten dot amets, ikasgeletan sexismorik bako hezkidetzareala eta ikuspegi feministea daukana. Horretarako, keinuak garrantzitsuak dira, hizkuntzak badauka pisua, baina ekintzek, horreek bai, ekintzek itzelezko garrantzia daukie. Andra bat ikututen badabe, danok ikututen gaitue!



LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Heldu da eguna

Hemen dago. Hemen dago. Heldu da eguna. Erlojuari lepoa emon gura arren, iges egiteko aukerarik ez dago, eta iritsi da urri lehenengoa.

Ostean, galapan, urri bigarrena etorriko dan moduan... gero zemendia, segiduan gabonetako ajea eta biharamuna...

Iratzargailua, beharra, supermerkadua, medikua, gimnasioa, ingelesa, eskolaz kanpoko mila ekintza, etxe barruko zereginak, Amazon, seriea, taberna, sare sozialak... Hara eta hona, heldu ezinda, burua aurrean, hanka ahulak atzean, egunerokoari -guk geuk jarritakoari- pausua harrapatu ezinik, helmuga begi bistan be agiri ez da-ta. Ez han, ez hemen, errendidu barik, gozatu barik, ase barik...

Eta hori guztia irribarretsu.

Sosegua eta patxada hartu gura dot, unetxo batez sieran. Egonean egon.

Intxaurrek oskolak galtzekotan; gaztainak sendo eta lodi

gaztainondoak dotore-dotore jantziz, San Migeletako haize epelak noz astinduko, akaso; sagarrak eta mahatsak, dolareetako bidean (sikateagaz uzta bizkortu egin ei da), sagardaoa zein txakolin gozoa noz egingo; artoa, arto bizar eta guzti -txikitako oroitzenak- agintari, segail; eta babak, noz batuko, garatuteko esperoan; mizpirak, arboletan, marroixka koloreetan jantzan, egun gero eta laburragoan seinale.

...

Bitartean urritzetatik saltu jolasean katamixar gorrixka... niri pentsakor begira, malenkonia-tsu, ni ulertu guran...

Prisa bako paseoa harrapatu nabe naturaren zertzeladek.

Hemen dago. Hemen dago. Heldu da eguna.

Erlojuari erreparau barik, guk geuk geure burua ez programe-tako ordua, denporearen katigu ez izatearen tertzioa, ospa egiteko unea...

ZERTZEAN



ANDONI SOLOZABAL

Gaia jarrita: "Aurrera begitu"

1

Pantailakin ez dago inor ere salbu digitala erosi ta gurea galdu urrunetik ekarri bertakoa saldu tokian tokikoa nahi neuke azaldu.

2

Interneten hasi naiz albisteen bila eta agertu zaizkit hainbat marabilla asko erdi egiak ta gezurrak mila norberaren filtrok pasatu dadila.

3

Ume txikiak ere pantailan idazten koaderno ta arkatza ez dabe ikasten gizarte tonto bati bidea errazten behar ez dan lekuan bazterrak nahasten.

4

Gaur prentsa idatziak hamaika meritu danon mesederako eginak baditu begiak zabal-zabal aurrera begitu beste hainbeste urtez holaxe segitu.

BEGI TXINDORRA

Las Palmaseko aquariumean ateratako argazki hau bialdu deusku Iker Zamakonak, itsasoko ur handietako mundu urdin harrigarria eta bere isiltasuna eta bakea BEGITUREN irakurleakaz konpartiduteko.

Zamakonak egin dauan moduan, udan bizitako momenturik ederrenak BEGITUGAZ konpartidu eta sari eder bat eroateko aukerea izan gura badozu, bialdu zure argazkiak begitu@begitu.eus helbidera hilaren 25a baino lehenago. Gehienez hiru argazki bialdu daitezke eta non, noz eta nok atera dauan esan behar da. Irabazleak Euskal Herriko landetxe baten astegoiaren egonaldia izango dau sarizat.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17 Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24 Golder 666 58 20 06


Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinika

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
ikolagata Zerbaita 901
R.P.S. 31/06



IGORRE

Herri bazkaria egongo da Igorreko Inbiu Egunean jentea alkartu eta euskeraz egin dagian

Urri lehenengoaren 16an izango da aurten, Igorreko Udaleko Euskera Zerbitzuak urtero antolatutena dauan Inbiu Eguna. Eguna giro euskalduneari pasetako, Eidabe konpainiaren *Garbijaia* antzerki animazinoa, herri bazkaria eta bazkalostean Eingo taldeagaz jantzaldia egongo dira Lasarte plazan.

Erredakzioa

Euskerearen jaia 12:00etan hasiko da publiko familiarrentzako "euskerea eta feminismoa, jolasen bitartez" lotzean dauzan *Garbijaia* animazioagaz. Publikoak modu aktiboan hartuko dau parte antzezlaneari, jolas eta jantzen bitartez, "Galtzerditxo eta Kamiseto" personaiei garbigailua ipintzen lagunduteko, eta "kape-lakaz, jaboikaz, eskupainuakaz, alfonbrakaz, pintzakaz baita galtzerdiakaz be" primeran pasauko dabela bertaratutakoek prometiduten dabe Eidabekoek.

Eguerdiaren, herri bazkaria berreskuratuko da aurten, jentean giro lasai eta natural baten berba egin dagian. Bazkarirako txartelak aldeztuak erosi behar dira eta helduentzako eta umeentzako menu desbardinak dagoz. Nagusientzako menuak 17 euroko prezioa dauka eta marmitakoa, txahal erregosia, pantxinetea eta edariak dagoz prezio horren ba-

rruan; umeentzako barriz, arroza kubatar erara, oilasko izterra patatakaz, izozkia eta edariak dagoz 12 euroko menuan. Bazkalostean, Eingo taldeak ipiniko dauz euskal giroa eta animazinoa, jentea jantzen egitera animauz.

Erakargarritasuna berreskuratuko guran

Jentea alkartuz, euskereari bultzada emon gura deutso Igorrek Inbiu Eguna. "Aurten, Inbiu Eguna zentzu gehiago dauka; izan be, Igorreko euskerearen egoera ez da guk gurako geunkena. Hori dala-ta, pandemia aurreko xarma berreskuratuko gura dogu, jentea mobiduarazo herri bazkariaren bitartez. Eta batez be ez dira ahaztu behar Joxan Artzeren berbak: 'hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik'. Beraz jalgi Lasarte plazara!" azaldu deutso BEGITU-ri Irune Costumero Igorreko Euskera Teknikariak.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gorbeia Turismok ibilbide gidatuak antolatu ditu urrietarako

Erredakzioa

Areatzako uribildua, Dimako Antzasti museoa, Ubideko antzinako kartzalea eta Zeanuriko Undurragako urtegia erakusteko dira ibilbide horreek; baita Orozko eta Otxandiko txorik interesgarrienak erakusteko be. Parte hartzeako, izena Gorbeiko turismo bulegoan Orozkon, turismo@gorbeialde.com helbidean edo 94 612 26 95 telefonoan emon daiteke.

Undurraga urtegiari buelta emonete da bisita gidatu honeetako lehenengo hitzordua, urri lehenengoaren 2an izango da, 11:00etan, Zeanuriko plazan. Ibilbide hori egiteko beste aukera bat be egongo da urri bigarrenaren 15ean. Areatzako uribilduaren barri jakiteko aukera urri



lehenengoaren 23an eta urri bigarrenaren 21ean izango da. Partaideak Areatzako Gudariaren plazan batuko dira 11:00etan. Ubideko kartzalea ikusteko interesa daukienak urri lehenengoaren 24an, 10:00etan, batuko dira udaletxean. Dimako Antzasti museoa ikusi eta antzinako andren eguneroko bizmodua jakiteko aukera bi dagoz; bata, urri lehenengoaren 17an, 11:00etan, Antzasti museoan bertan; eta bigarrena, urri bigarrenaren 28an.

Orozko eta Otxandio

Orozko Museo Etnografikoa, eta Otxandio herria edota bere mendi inguruak ezetuteko dira, Gorbeialde inguruko baina Arratiatik kanpoko bisita gidatuak. Orozko: *100 auzo baina gehiago eta istorio asko* izeneko bisita, urri lehenengoaren 9an eta urri bigarrenaren 7an izango dira. 11:00etan, Museo Etnografikoan bertan batuko dira partaideak.

Urri lehenengoaren 30ean, 11:00etan, Otxandioko plazan batuko dira oinez "Gorbeiko altxorrik" ikusi gura dabezanak eta mendiko bizikletan Otxandio ezetu gura dabenak.

ZEANURI

Aurrera doa II. Berdintasun Plana egiteko prozesua

Erredakzioa

Aurreko udal gobernua Murgibe Berdintasun Aholkularitza enpresari esleitu eutsan Zeanuriko II. Berdintasun Plana eta oin dala hila-bete batzuk ekin eutsien I. Planaren ebaluazioari. Holan, udan, jenteari artean galdetegi bat zabaldu da. Lehenengo plana 2015eko da.

Zeanuriko Udalak galdetegi bat zabaldu dau herritarrek beteteko. "Galdetegi WhatsApp zabaldutako baina paperean erantzuteko aukera be egongo da. Abuztua hile apur bat arraroa da gauzak zabalduetako baina gure asmoa da egiten doguzan bileretara eta gagozan lekuetara eroatea ahalik eta jente gehienengana helduteko" azaldu deutso BEGITU-ri Edume Landajo zinegotziak.

Galdetegi horregaz lehenengo planaren ebaluazioa egin gura dabe eta datozen hileetan bigarrena amaitutea espero dabe. I. Planaren ebaluazioa egin ostean, herriko andra taldeagaz batuko dira Murgibekoak plana disei-

tako eta alkarriketarako nori egin zehaztuteko eta hirugarren zatia izango litzateke dinamika partehartzaileak martxan ipintea.

Plangintzearen arabera, urri lehenengoan sortuko da plana egiteko talde eragilea, landa lana zehaztuko da eta landa lana egiten hasiko dira. Urri bigarrenean, landa lana amaitu eta ebaluaketea eta diagnostiko txostena egingo dabez. Azkenik, zementatzen, lehenengo zirraborra amaitu, talde eragileagaz kontraste bilera egin eta dokumentazioa aurkeztuko da.



ARTEA

Tekno-punk kalejireia, kontzertuak eta beste ekintza ugari egongo dira herriko jaietako aurreko astegoienean

Herriko kultur txupina Faxismoaren Aurkako Txupinazoa izenpean, Arteako Herriko Bentak hilaren 1etik 3ra, egitaraua prestatu dau, hamaika jardueragaz.

Erredakzioa

Bertso-afarian, Igel Txapelketan edo orientazio proban parte hartzeako izena emon behar da *herrikobenta. artea@gmail.com* helbidean edo 94 602 88 55 telefonoan. Txupinazoa honegaz, Arteako Herriko Bentaren kultura jardueri hasikerare emon gura deusee.

Barikuan, hilak 1, 18:00etan, hasiko da jaiak. Txupina eta pregoia bota ostean, Arantzarte eta Goi Herri jantza taldeetako kideek, agurra eta Kaxarranka jantzak egingo dabez. Gero, 19:00etan, Aragoiko El Gran Puzzle Cozmico-ren umoreagaz disfrutau ahal izango da plazatik urten eta herriko kaleetatik egingo dan kalejiran. Eguna amaituteko, 21:00etan alkartasun bertso-afaria egongo da Herriko Bentan, Amets Arzallus eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariakaz. Elikadura burujabetzaren alde, errepresio ekonomikorik ez! lelopean, bertso-bazkariagaz batutako dirua, barazkiak saltzeagaitik nekazari batek jasotako isuna ordaintzen lagunduteko izango da. Base-

rritarrak berak berbea hartuko dau gertatutakoa azalduteko.

Zapatuan, hiru kontzertu, umeentzako disko-festa, orientazio proba eta Igel Txapelketea egongo dira. 11:00etan, orientazio probegaz hasiko da eguna. Edozein edadetako jentearantz da proba. Gero, 13:00etan, eguneko lehenengo kontzertua eskainiko dau Gasteizko Kukaratas folk taldeak. Arrastian, Igel Txapelketea egongo da 17:00etan eta dj Gomigaz umeentzako disko-festa. Ondoren, kontzertu bi: 21:00etan, Nikaragua, Kuba eta Euskal Herriko troba eta boleroak entzuteko aukerea egongo da Cuarteto Chivero taldeagaz eta gero, 22:30ean, rock musikea joko dau Arteako Foterie taldeak. Taldearen izena musikarrien Arteako etxearen izena da. Izan be, antxina fotea egiten zan etxe horretan, ogi mota bat.

Domekan, hilak 3, 12:00etan, Goloka Antzerki taldekoek txongiloak egiten ikasteko tailerra eskainiko dabe eta 14:00etan, Txikiren umorezko bakarriketea egongo da *40 urte eta aldapan*

behera niek izeneko bakarriketa arrakastatsua. Bakarriketa honetan, "Txikigaz batera, barre algara eta festa sortuko dabe ikusleak protagonista zuzena dirala".

Jai egunotan, bazkari eta afari zerbitzua egongo da Herriko Bentan.

Faxismoaren kontra

Prestatutako egitarauagaz hilari "gorri ikutua" emon gura deusie antolatzaileek eta danon artean "herri anitza, solidarioa, feministea eta elikadura burujabetzan" oinarritutakoa egin gura dabe. "Faxismoaren kontrako ospakizunerako aukeratutako markoa, herritar gehienak hartzeako modukoa iruditen jaku. Europako gobernu askoren ultrasekoierantzako biraketa ikusita, baita espainiar estaduan be, antifaxismoaren banderea ateratea derrigorrezkoa irudituten jakun persona zaurgarrienakaz, migranteakaz, konprometiduta dagoan proiektu baterako. Jaiak, momentu soziala izanda, ez dauka zertan aparte egon bizitzaren beste alderdietatik" azaldu deusie BEGIturi antolakuntzatik.

14:30ean, auzo bazkaria.
19:00etan, Igel Txapelketea.
20:00etan, txokolata.

Elizondo (Lemoa)

Urri lehenengoak 8, barikua

12:00etan, mezea Andra Marin.
13:30ean, Etxebarria aita-semeak trikitilariak herriatik.
17:00etan, alkartruketako gazteek antolatutako tailerrak eta jolasak Elizondon.

19:00etan, Markeliñe antzerki konpainiaren *Chef Nature* ikuskitzuna Kulturguneko plazan.

Urri lehenengoak 9, zapatua

10:30ean, Lemoa Txirindularien Elkartearen eskutik, Bizkaiko txirindularitza eskoletako Ausarten Kopa, Elizondotik.

13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz.

15:00etan, bertso-bazkaria, bertsolariak: Nerea Ibarzabal eta Eli Pagola.

19:00etan, poteo musikatua Taberna ibiltariagaz.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratiak alegazinoak aurkeztu ditu Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala atzera botateko

Jaurlaritzeak, Euskadiko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialari (EEBB LPS) hasikerako onarpena emon ostean, alegazinoak aurkezteko 45 eguneko epea zabaldu eban maiatzean. Euskal Herria Bizirik plataformek jakinarazotakoaren arabera, 4.000 bizilagunek, alkartek eta udalek alegazinoak aurkeztu ebezan plana atzera bota eta EAEn dagozan 110 zentral eoliko eta parke fotovoltaikoko proiektuak geldituteko.

Erredakzioa

Arratian, Makatzak talde ekologis-teak jaso ebazan Lurralde Planari egindako alegazino herrikoiak, eta alegazino tekniko bi be aurkeztu ebazan. Ubideko Udalak be alegazinoak aurkeztu eban. Izan be, alegazinoen arabera, EEBB LPSa aurrera atera ezker, arriskuan egongo litzateke Arratia, Ubide eta Zeberio inguruko mendietako basa espezieak, biodibersidadea eta korridore ekologikoak, besteak beste, "ingurumen aldaketa nabarmena" eraginez.

Alegazinoetako bost errazoi

Herritarren alegazinoek 5 puntu ditue, planaren kontra egoteko errazoiak azalduten dabezanak. Lehenengoan, planak "ingurumen aldaketa nabarmena" eta "lurzoru naturalean inpaktu negatiboa" eragingo leukela adierazoten da. Bigarren puntuak dino, plana bateraezina dala landa eremuaren eta elikadurearen subiranotasuna-

ren defentsagaz eta horrek landa eremuak despopulatzea eta pobretzea ekarriko leukela. Hirugarrenak nabarmentzen dau, EEBB LPSa bateraezina dala naturaguneak eta basa espezieak babesteko araudiakaz. Hori argi ikusten da Arratian. Izan be, Gueñes-Itsaso 400.000 voltiotako autopista elektrikoa, Arratiatik pasatzean, Aramotz eta Mandoiatik be pasetan da, eta babestuta dauan sai zuriak bertan egiten ditu txitok. Makatzak taldeko Igor Bernaolak, Aramotzen habia egiten dauan sai zuri bikotea eta euren aurtengo txitok grabau ditu bideoan.

Energia konsumoa murriztea ez dala agertzen EEBB LPSn dino laugarren puntuak eta hori enpresa energetiko handi eta inbersino taldeen mesederako dala; eredu sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki jasanezina bultzatuz. Bosgarren puntuak barriz, prozedureari egiten deutso erreferentzia eta udal autonomiaren kontratatzat jotzen dau plana.

Sanantolinak eta andramariak Dima eta Lemoako auzuneetan be ospatuko ditue

Erredakzioa

Zeberioko jaiak dira sanantolinak, sanduniak, eta Arteako andramariak, baina izen horreetako ermita eta eleiza inguruko auzuneetan be jaiak ospatzen dira. Holan, Lemoan sanantolinetan, ohitureari jarraituz, mezea, Baba Lehiaketea eta erromeria egongo da. Dimako Oban be ospatzen dira sanantolinak eta mezea ermitan, jana eta Dimatik Obara urteroko krosa ez dira faltauko.

Lemoako Elizondoko jaiak andramariak dira. Egun biko jai egitaraua prestatu dabe eta trikitilariak, antzerkia, Bizkaiko txirindularitza eskoletako lasterketea eta bertso-bazkaria egongo dira beste jarduera batzuen artean.

San Antolin (Lemoa)

Urri lehenengoak 2, zapatua

12:00etan, mezea jubiladuen

etxean, ondoren barauskarria.

14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena eskolako aterpean.

16:30ean, Joxe Mendizabalegaz erromeria.

Oba (Dima)

Urri lehenengoak 1, barikua

20:00etan, txupina eta jaiak hasi.

Urri lehenengoak 2, zapatua

Eskulan erakusketea txokoan.

12:00etan, mezea.

20:00etatik aurrera, txitxi-burduntzia eta Bola Txapelketea dj Ismak lagunduta.

Urri lehenengoak 3, domekea

Eskulan erakusketea txokoan.

11:30ean, Dimatik Obara, Nordic Walking (oinez); 12:00etan, krosa, (galapan).

ARRATIA



ZEBERIO

Hasi dira Zeberioko jaiak



20:30ean, Playback Txapelketea.
22:00etan, suzko zezena Zeberioko Gazte Txosnak antolatuta.
22:30ean, erromeria Altxa Porrugaz. Gabaz, Linbo Lehiaketea.

Urri lehenengoak 2, zapatua

10:30ean, Asel Ozerinjuregi Bizi-kleta Martxa.
13:00etan, Laura Orueren aldeko XXIII. urteurrenko mezea.
13:30ean, helduentzako barauskarria.
14:00etan, Makailao, Patata Tortilla eta Paella Txapelketak.
18:00etan, umeentzako jolasak.
20:00etatik 23:00etara, eraso matxistak eta LGTBQ+ kolektiboaren aurkako erasoak prebenidutuko eta informazioa emoteko Sexu-Bizi furgonetea.
20:00etan, kontzertuak: Zutik elektrotxarangea, Bonestorm eta Kilimak. Ostean, dj Matxinada. (Autobusa doban egongo da).

Urri lehenengoak 3, domekea Baserritar eguna

11:00etan, azokea.
11:00etan, federauen eskupelota partidua. Arandia-Zabaleta vs Iglesias II-García. Bigarren partidua, eskupelota profesionala: Leire Garai-Nora Mendizabal vs Amaia Aldai-Ruiz de Larramendi.
12:00etan, Marianito pintxada Gazte Txosnak antolatuta.
13:00etan, mezea.
13:30ean, Zeberioko albokariak.
18:00etan, Antxo ta Pantxa pailazoen, gazteentzako antzerkia.
20:00etan, kaleko antzerkia, Bapatuan Zirko konpainiaren *Baserriko porrusalda* antzezlanana.

Urri lehenengoak 4, astelehena

Mozorrotuta etorri jaiei amaierera emoteko!
12:30ean, umeentzako jolasak.
13:00etan, kalejireia, Etxebarria aita-semeak alaituta.
15:00etan, herri bazkaria, indabadea.
17:00etan, bingo musikala Gazte Elkartearen eskutik, txosnetan.
19:00etan, Orkresta elektrotxarangea.

Erredakzioa

Abuztuaren 31ko arrastian bota eben txupina Zeberion, herriko jaiei hasikerea emoteko. Ostean, herri afaria egon zan eta Zornotzako Kittu taldeak ipini eban musikea. Baina jaiak hasi baino ez dira egin, eta hurrengo lau egunetan zeberioztarrek eta hara hurreratutakoek izango dabe zer gozatu. Kontzertuek, erromeriak, antzerkiak, pailazoen, lehiaketa gastronomikoen eta eskupelota partiduen, besteak beste, ipiniko dabe jai giroa.

Zeberioko Gazte Txosna

Zeberioko Gazte Elkartek be ekin-tzak antolatu ditu hilaren 1etik 4ra. Barikuan, hilak 1, suzko zezena egongo da 22:00etan, eta ostean, Linbo Lehiaketea. Linbo Lehiaketea Trinidad uharteko jantza lehiaketa herrikoa da. Jantzaren helburua barra baju baten azpitik pasetea da barra hori bota barik. Zapatuan, kontzertuen ostean, elektrotxarangea, Bonestorm eta Kilimak taldeen ostean, dj Matxinadak musikea ipiniko dau gaua luzatuteko; domeka eguerdian be, dj-a egongo da eta antolakuntzeak jentea animau gura dau euren biniloak eroatera. Jaie-tako atzen egunerako, makarroi jana eta bingo antolatu dabe.

Urri lehenengoak 1, barikua

12:00etan, umeentzako jolasak.
13:00etan, kalejireia trikitaliak.
15:00etan, jubiladuen bazkaria, Mus, Tute eta Briska Txapelketak.
18:30ean, eskupelotea Mandoia Zeberio pelota alkartearen eskutik.

ARTEA

Erromeria ugari egongo dira Arteako jaietan

Hilaren 7an, 18:00etan botako dabe Artean jaiei hasikerea emoteko txupina eta hurrengo lau egunetan, buruhandiak, batukadea, antzerkia, Tortilla Txapelketea, mozorro gaua eta jantzan egiteko musikea ez dira faltauko Arteako erdigunean.

Erredakzioa

Arteako jaiek bigarren parte bat be izaten dabe, hurrengo aste-goienean. Holan, hilaren 16an MerkArtea egongo da eta orduan be ez da jai girorik faltauko, goizez merkaduagaz eta arrasti eta gauean kalejireia, folk ikuskizuna eta erromeriagaz.

Urri lehenengoak 7, eguna

18:00etan, txupinazoa, buruhandiak eta batukadea.
19:00etan, erromeria Altxa Porru taldeagaz.
22:00etan, herri afaria eta ostean, bingo musikatua.

Urri lehenengoak 8, barikua

12:00etan, mezea.
13:00etan, bilbainadak Los Chimberos taldeagaz.
18:00etan, umeentzako antzerkia. Antxo ta Pantxa taldearen *Gurekin konektatu* ikuskizuna.
19:30ean, indarkeria sexista bako gunea.
20:30ean, RocKalean elektrotxarangea.
21:00etan, taloak.
23:00etan, erromeria Akerbeltz taldeagaz.



Urri lehenengoak 9, zapatua

11:00etan, umeentzako puzgariak eta jolasak frontoian.
14:00etan, Tortilla Txapelketea.
14:30ean, herri bazkaria.
20:00etan, Mozorro Desfile Txapelketea udaletxetik plazara.
21:00etan, nagusien eta umeen playback-a.
23:00etan, Kresala orkesta.
02:00etan, Fonoplay djs.
Mozorro gaua: jolasak eta jostailuak.

Urri lehenengoak 10, domekea

12:00etan, Eleder magoa.
13:30ean, kalejireia Trikitisax taldeagaz.
18:30ean, erromeria Joselu anaiakaz.
20:00etan, txokolatea.

Urri lehenengoak 16, zapatua

10:00etatik 15:00etara, Merkatua Azokea.
12:00etatik 14:00etara, *photo-call*-a baserritar jantzita doazentzat.
18:00etan, kalejireia Taberna ibiltariagaz herritik.
21:00etan, Kuttune folk taldearen ikuskizuna.
23:30ean, erromeria Bidean taldeagaz.

IGORRE

Egun biko jaiak prestatu dabe motorzaleek

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 1 eta 2an Arratiako Motor Taldeak antolatutako XXIII. konzentrazinoan, Arratia eta Arratiatik kanpoko motorzaleak batuko dira, bailaratik ibilbideak egin eta alkarregaz aisialdia konpartiduteko. Arratiatik ibilbideak egiteaz gainera, zuzeneko musikea, jana, edana, herri-kirolak, jokoak eta akrobaziak ikusteko aukerea izango dabe bildutakoek. Igaz 200 lagun inguru batu ziran eta aurten beste horrenbeste espero dau antolakuntzeak.

Garben egongo da kanpalekua eta hantxe bertan egingo dira aisialdiko jarduerak, akrobaziak izan ezik.

Barikuan, hilak 1, 18:00etan, emongo jako hasikerea konzentrazinoari, topaketetarako, hau da, bariku eta zapatuko afari eta bazkarirako, izen-emoteagaz. Musikeari jagokonean hiru kontzertu egongo dira, Lee Junior musikari asturiarrak bi eskainiko ditu eta Stereorize Bilboko taldeak beste bat. Lee Juniorren kontzertuetako bat barikuan izango da, 21:00etan eta beste zapatuan, 21:30ean. Barikuan, txosnea gaueko hamabietan zarratuko da.

Zapatuan, 10:00etan ibilbidean parte hartzeako izen-emotea egongo da, eta 11:00etan hasiko dabe motorren gainean, Arratiatik ibilbideak partaideek. Bueltan, 13:00etan, herri-kirol erakustaldia egongo da eta 15:00etan, bazkaria.

Bazkalostean, jokoak egongo dira, eta Narcis Rocak akrobazia erakustaldia egingo dau publikoaren haridurarako. Parilladea egongo da gero, 19:30ean, afari-legea egiteko eta ostean, kontzertuak egongo dira; 20:00etan, Stereorize Bilboko rock taldearen txandea izango da eta 21:30ean, Lee Juniorrek eskainiko dau bere bigarren kontzertua.

Nahiz Arratiako Motor Taldeak antolatutako konzentrazinoan motorren inguruko ekintza bat izan, "urtero herriaren parte-hartzea izaten dogu kontuan, herri-kirolakaz eta aurten motor akrobaziakaz" dinoe Arratia Motor Taldetik, eta urtero hobetuteko asmoagaz egingen dituela bai konzentrazinoak bai gainontzeko ekintzak, gehitu dabe.



Zeberioko Udalak eta jai batzordeak
jai zoriontsuak opa deutsuez!

Ondo pasau
sandonietan

Gora Andra Mariak!



Arteako Udalak eta Jai Batzordeak
JAI ZORIONTSUAK
OPA DEUTSUEZ

ARRATIA, ZEBERIO

Arratiako EH Bilduk Osakidetzako murrizketak osasun sistema publikoa ahultzeko dirala salatzen dau

Osakidetzako murrizketak eta bere egoera larria, Eusko Jaurlaritzaren aspaldiko estrategia dala osasun sistema pribaduaren mesedetan sistema publikoa ahultzeko, salatu dau Arratiako EH Bilduk adierazpen instituzional baten bidez.

Erredakzioa

Bertan eskatzen jako Eusko Jaurlaritzeari eskualdeko konsultategiak, zerbitzuak eta ordutegiak mantentzeko eta osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko, holan Lehen Arreta indartu ahal izateko. EAJ-PNVk be murrizketen kontrako idatzia aurkeztu dau; bertan, Osasun Sailari eta Barrualdea-Galdakao ESri eskatzen deutse Lehen Arreta zerbitzua urte osoan mantentzeko. Aurtengo udan, Arratiako osasun zentro guztietan murrizketak egon dira.

Egoeraren larriaz jaubetuta, mozinoak aurkezten dabiz udalaxe gehienetan alderdi biak. 2018tik hona, osasun sistema publikoan emon diran atzerapausuak gero eta nabarmenagoak dirala dino EH Bilduk bere mozinoan. Izan be, atzen urteotan, publikotasunaren kontrako estrategian, Etenik Gabeko Arreta Guneak itxi egin dira edo ordutegiak murriztu ditue; osasun etxeetan izugarriko profesional gabezia dago eta ezinezkoa da pazienteei kalidadezko arreta bermatzea; hainbat osasun etxetan zerbitzuak zarratzen edo murrizten dabiz; aurrez aurreko konsultak lortzea gero eta gaxagoa da; adinekoen eta gaixo kronikoen jarraipenerako gero eta zailtasun handiagoak dagoz eta osasun sustapena bertan behera geratzen joan da edo ez da behar dan moduan garatu.

Hori dala-ta, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzeari eskatzen deutso urte osoan bermatzeko eskualdeko osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak eta ordutegiak, eta irekiera egunak uda sasoiaren be mantentzeko. Medikuegoiliarren kontratazio eredu aldatzeko eta osasun profesionalen kontratazio baldintzak hobetzeko be eskatzen deutso, baita Lehen Arreta eskaintzen dabene mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handituz eta diziplina anitzeko lantaldeak sortuz

be, lantaldeotan beste profil profesional batzuk txertatuz, geriatrak eta fisioterapeutak, esate baterako.

Murrizketek eta osasun sistema publikoaren kontrako estrategiak eskualdeko herritarren oinarriko eskubidea dan osasuna, "arriskuan" ipinten dabe, EH Bilduren eretzian.

EAJk Lehen Arretaren garrantzia nabarmendu dau

EAJ-PNVk be murrizketen kontrako idatzian, Lehen Arretaren garrantzia azpimarratzen dau. Osasun Mundu Erakundeak (OME) Lehen Arreta "herrialdeko sistemaren muina" lez definitzen dau, eta Osasun Sailari eta Barrualdea-Galdakao ESri, Lehen Mailako Arreta zerbitzua herrietako konsultetan emoten jarraituteko eskatzen deutse EAJ-PNVk; hau da, konsultak urte osoan zabalik egotea, baita udan be.

Jeltzaleek Lehen Arreta bermatzea gura dabela dino, personen eta euren komunitatearen osasun arazo gehienak konpontzera bideratutako laguntza emoten dauan asistentzia maila dalako Lehen Arreta, osasun mentaleko sareagaz, gizarte zerbitzuak eta osasun publikoko sareagaz koordinatuta. Gizartearen zahartzea eta arazo kronikoen konplexutasuna dirala-ta, herriko konsultategiak zabalik eukitea beharrezkoa ikusten dabe, etxetik hur arreta emoteko, batez be, arazo kronikoak dituen pazienteei eta edadekoiei. Aurrez aurreko zerbitzuak lehentasuna izatea be eskatzen dabe, bestelako arreta moduak erabiltzaileen esku itxiz.

Igorren eta Lemoan zentralizata dago mediku arreta

Arratian, udako murrizketez gainera, Arantzazuko mediku konsultategia zarratu zan oin urte batzuk, eta ez dabe barriro zabaldu. Osakidetzak dana dala, ez dau inoz esan ez dala barriro zabaldu eta Arantzazuko Udalak zerbitzua erreklaetan jarraituko daua dino

Asier Aburto Arantzazuko alkateak.

Bedian eta Zeberion be ez da uda osoan medikurik egon; eta Areatza, Artea, Dima eta Zeanurin murriztapenak egon dira: egun batzuetan, zarratuta egon dira konsultategiak eta beste batzuetan ordutegi murriztu dabe. Eta ez bakarrik murrizketak izan dabezan herrietan, kalteak, murrizketarik izan ez dabezan osasun zentroetan be igarri dira, zentro horretara mobidu behar diralako udan zarratuta dagozan konsultategietako pazienteak, atendidu beharreko paziente kopurua igoz.

Mozinoak

Garagarrean hasi ziran alderdi biak murrizketak salatuteko mozinoak edo idatziak aurkezten udalaxeetan eta kexak Osakidetzara bialtzen. Oingo hilean, urri lehenengoan, jarraituko dabe eskualdeko udalaxeetan mozinoak bozkaten.

Artean eta Areatzan mozinoak aurkeztu ziran garagarreko eta

abuztuko plenoetan. Areatzan, mozino biak onartu ziran, EH Bildu eta EAJ-PNVrena, hain zuzen be. EH Bilduren mozinoak, EH Bilduren lau botoak izan zituan alde eta bi kontra, EAJ-PNVrenak; EAJ-PNVren mozinoak barriz, EAJ-PNVren boto biak alde izan ebazan eta EH Bilduren lau abstentzinogaz atera zan aurrera.

Artean, EH Bilduk mozinoa aurkeztu eban baina "EAJk idatzia egingo eban, plenoan bertan mozinoa kendu zan eta ez zan bozkatu. Arteako EAJk Igorreko Osakidetzagaz batzarra eskatuko dau eta Arteako udalaxe egoerea ikusita, beste idatzi bat egin eta kexa adierazoten jarraituko dogu" adierazo deutso BEGITURI Gorra Beitia zinegotziak.

Bediako Udalak, zerbitzua Lemoan zentralizetearen kontra, Udalean dagozan talde politiko biek adostutako idatzi bat bialdu eban Osakidetzara. Dimak eta Zeanurik be, idatzia bialdu eben garagarrean Barrualde-Galdakao

ESlra, ordutegi murrizketen aurrean kexa adierazoz.

Zeberio beste ESI baten dago, eta, EH Bildu, eskualdeko herriak hartu-emonetan dagoala "zeozer bateratua" egiteko azaldu deutso Ekain Goti alkateak BEGITURI.

Mobilizazioei jagokienean, abuztuaren 8an, 35 bat lagun batu ziran Zeberioko EH Bilduk deituta herriko plazan, "Zeberio medikua behar du" inoan pankarta baten atzean, herrian medikua behar dala aldarrikatzeko. Izan be, Zeberioko mediku konsultea bagilaren 26an zarratu zan eta urri lehenengoaren 8ra arte ez da zabalduko.

Zeberion izan ezik, beste herrietan, udan ez da mobilizaziorik egin.



Igorre

Inbiv

eguna

IRAILAK 16 | HERRI BAZKARIA LASARTE PLAZAN

HELDUAK

Marmitakoa
Txahal erregosia
Pantxineta
Ardaue, ure,
kafea, infusinoak...

17€

UMEAK

Arroza kubatar erara
Oilasko izterra
patatakaz
Izozkia
Ure, freskagarriek...

12€

Tiketak salgai

Txaparron,
Gau Loran eta
Jubilatuenean

Euskereak
batzean
gaitu

BEDIA

Aparioko harrobia handituko dau Cementos Lemonak Bediarantza zabalduz

Apario mendiko harrobia handitu gura dau Cementos Lemona enpresek, datozen urteetan 18,3 miloi tona kareharri aterateko. Izan be, Apario mendia Igorre, Lemoa eta Bediaren artean dago eta Igorre eta Lemoako udalerrietan dagozan mendi zatietan, kareharria, 27 urtez ustiatu ostean, ia agortuta dago han. Horregaitik, Bediako zatia ustiatu gura dau Cementosek oin.

Erredakzioa

Ustiaketa hori interes komunitarioaren kontra doala aitortzen dau Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak egindako txostenak. Txostenaren arabera, "eragin larria" izango leuke horrek; beste gauza batzuen artean, "interes komunitarioko artadi kantauriar" baso bat moztu beharko litzatekelako. Eta Bizkaiko Foru Aldundiaren beste txosten batek be jakin arazoten

dau "planak talka egiten dauala lurraldean garatzen dabizan konserbazino estrategiakaz; korridore ekologikoko sistema handi bat ezartzeagaz, esate baterako". Inguru horretan gainera, flora eta faunako babestutako espezieak dagozala dino txostenak.

Ekologistak be kontra agertu dira. "Harrigarriena eta arduratutakoa da kalte horreek guztiak onartu arren, handitze lanakaz aurrera egin leikela dinoala Jaur-

Ustiaketa hori interes komunitarioaren kontra doala aitortzen dau Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak egindako txostenak

laritzeak, eta horretarako, oin dala 30 urte baino gehiago emondako baimen baten oinarrituten dira. Beste modu batera esanda, azkenengo hiru hamarkadetan ingurumena babestuteko onartu dan araudi guztiak ez dau ezer balio enpresa pribadu baten interesen aurrean" dinoe Makatzak Arratiako Ekologistak taldekoek. Gainera, Cementos Lemonari eskatzen jakozan konpensazino neurriak (desagertuko dan artadia ordeztuteko zugatz landaketea, besteak beste) dirala-ta, Lemoatxeko harrobia barriztuteko enpresearen konpromisoa dakarre gogora, betetze maila bajua salatuz. "Kapitalismoaren betiko leloaren aurrean gagoz oingoan be: irabaziak gitxi batzuentzat eta kalteak gaur danontzat eta bihar ondorengo belaunaldientzat. Ez badogu herritarrok ezer egiten, Apario mendiko eta inguruotako kalteak konponezinak izango dira. Zein auzo, baserri, baso edo herri izango da hurrengo?" dinoe.

1990eko baimenagaz, maineria aurrera
Erakundeak eurak eta ekologistak

bat egin arren Apario harrobiko ustiapena Bediara hedatzeak eragin handia eta larria ekarriko dauan ustean, badirudi aurrera egingo dauala proiektuak Eusko Jaurlaritzek 1990ean emondako baimen bateri esker. Izan be, El Correo egunkariak argitaratutakoaren arabera, Jaurlaritzako teknikariek adierazo dabe proiektua ezin dala gelditu arazo, Jaurlaritzek berak emon ebalako baimen hori.

Bediako arau subsidiarioak be aldatu behar dira oin arte babesten eben Apario mendia, Cementos Lemonak ustiatzeko. Horretarako tramiteak hasita dagoz. Bediako Apario Harrobia izeneko eremua sortzeko Bediako Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena emon jakola, 2023ko urtailaren 24ko Osoko Bilkuraren ebatiaren bidez, 2023ko zezeilaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan, eta aldaketea jente-aurrean ipini behar zala, Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenagaz batera, 45 eguneko epean, agintzen zan bertan. "Urte batzuk dira hasi ginala tramiteakaz, holango tramiteak luzeak izaten dira-ta. Jente-aurreko erakusketan egon zan eta ez zan alegazinorik egon, eta administrazino sektorialel eskatu jakien txostena" azaldu deutso BEGITURI Aitor Sorriketa Bediako alkateak. Udalak ezin dauzala arau subsidiarioak aldatu gaineratu dau, 7.000 biztanle baino gitxiagoko udalerrietan, hori BFAk egin behar daualako.

2050eko hamarkadara arte
El Correek argitaratutakoaren arabera, Cementos Lemonak adierazo dau, harrobia Bediara ez zabaltzeak, "eskualdean dituan instalazino guztiak zarratutea ekarri ahalko leuke", enpresearen epe erdiko bideragarritasuna kolokan egongo litzatekelako, eta 212 lanpostu dagozala jokoan dinoe. Euren kalkuluen arabera, barriz, Bedian ustiatzen jarraitzeak, gitxienez 2050eko hamarkadara arte ahalbidetuko leuskio zemetua eta hormigoia egiteko behar dan kareharrizko hornidurea fabrikeari.

Argazkia: TAIM WESER.



aek euskara praktikoa

euskara hurbil, zu urrun heltzeko

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritza, maila egiaztatuz gero.

Arratiako udal guzthiek diruz lagunduta

EKAIN GOTI

"Pandemia sasotik hona eskari handia dago Zeberiora biziten etorteko"

Atzen udal hauteskundeak EH Bilduk irabazi ebazan Zeberion, datozan lau urteetarako alkatetza lortuz, EAJ-PNVri hamaika botoko aldea aterata. Bagiletik Ekain Goti Olabari da Zeberio alkatea. Goti, zeberioztarra da eta Isasi auzoan bizi da. "Lehen beste auzo baten bizi nintzan Zubibari auzoan, gaur Isasin bizi naz, emazteagaz eta seme bigaz. Zeberion gustura bizi gara" dino. Garraiolari lanbidez, kamioia aparkauko dau datozen lau urteotan alkate izateko bere taldeko lau zinegotzien laguntzeagaz. "Taldea ikaragarria, langilea, zeberioztarrak danok eta lanerako prest" bere esanetan.



Ekain Goti.

Erredakzioa

Atzen legealdi bietan EAJ egon da agintean, baina maiatzeko hauteskundeetan EH Bilduk 11 boto gehiago lortu ebazan. Ze balorazio egiten dozue?

Argi dagoana da jentek aldaketa gura ebala: zortzi urte egon dira EAJkoak alkatetzan eta oingoan herriak aukeratu dau beste perfil bat, beste partidu politiko bat... aldaketa egotea. Gainera, betiko moduan, hemen beti izaten da holan, partizipazio handia egon zan. Jentea mobidu egiten da eta aurtan be, mobidu egin da botoa emoterakoan. Eta

eskertzekoa da.

Hile bi pasau dira alkatetza EH Bilduk lortu ebanetik eta hurrezkerok, ez gara parau. Behar asko dago egiteko. Egun batzuetan goizez eta arrastiz ibiltzen gara beharrean, goizetik bakarrik ez daualako denporarik emoten dana egiteko.

Oin dala 8 urte, EAJk lortu ebanean alkatetza, alkatearentzat dedikazio osoa eta soldata igoera handia ipini ebazan. Bere momentuan, polemikea sortu eban horrek. Zuk be dedikazio osoa daukazu?

Bai, nik dedikazio osoa daukat. Baina oin dala 8 urte arazoa ez

zan izan bakarrik soldata eukitearena. Arazoa izan zan programan ez ebela ezer azaldu soldatearen inguruan, eta bera sartu zanean udaletxean soldata ipini zala. Orduan ipini ahal zan topean. Guk barriz, lehenengo egunetik ipini genduan programan alkatea liberata doala. Holan egoan pentsauta.

Soldatea ez da arazoa, ze atzanean soldata ahalbidetzen dau nire moduko langile batek, autonomia danak, udaletxean egoteko aukerea eukitea. Ze osterantzean niretzat ezinezkoa litzateke, garraiolari izanda alkatetzan egotea. Horrek aukerea emoten dau perfil askotako jentea egoteko holango kargu baten.

Zeintzuk dira hile bi honetan identifikatu dozezan herriaren preminak eta lehentasunak?

Begiratuten gabiz herrian zer behar dan eta betebeharrak zeintzuk diran, hortik tiratuteko. Lehentasunak badagoz, etxebizitzak, esaterako, arazo bat dira Zeberion; herritarren parte-hartzea guretzat oso inportantea da; kultura indartutea be gura dogu eta hor badukagu zeozer prestata; osasun arreta zerbitzuak urtero mantentzen gura doguz, udan zarratuten dabez eta ondoko herria edo hurrengora joan behar gara-ta, eta zaharren egoitzea be pendiente daukagu.

Zaharren egoitzeak ondo funtzionau dau, ez da egon arazorik gestioan, edo hori pentsetan dogu behintzat, baina gerentek esan deusku badoala eta gerente, mediku eta erizain bila gabiz. Horretan gabiz buru-belarri sartuta, goiz eta arrastiz. Han, 31 egoiliar dagoz.

Beste gauza batzuk begiratuten gabizana dira "herentzian" jasotako hainbat gauza: lur sail batzuen erosketak amaitu barik dagozanak, esate baterako. Eta, jaiak zerotik egin behar izan doguz.

Biztanle kopuru aldetik Zeberio herri txikia izan arren, zabalera handikoa da eta 70 auzune ditu. Herritar guztien beharizanak beteteko zer bultzatuko dozue, auzoetan

euretan ahalik eta zerbitzu gehien eskaini ala erdigunegazko konexioa?

Lehenengo eta behin begiratu behar da auzo bakoitzean ze beharizan dagozan eta azertu. Baina alde batetik, bilatzen dogu auzoak zerbitzu minimoak behintzat izatea, baina baita auzoetatik erdigunerako konexioa ipintea edo indartutea be. Atzanean, ez da bakarrik hemendik 6-7 kilometrorara egon daiteken auzo baten danerik eukitea, erdigunerako lotura izatea, herria egitea be bada. Eta hori da egin gura doguna.

Herri mailan be zerbitzu publiko gitxi daukaguz. Garraio publikoa esate baterako, eskasa da, bai Zeberiotik Arratiara, bai Zeberiotik Ugaorantza.

Bai eta atzen urteetan oindino gehiago eskatu da. Izan be, oin dala urte batzuk baegoan Zeberiotik Bilbora zuzeneko autobusa eta oin ez dago; eta Arteatik hona, zer dagoz egunean autobus bi?

Bai. Goizean badago autobusa, Igorreko Institutura doazen ikasle batzuk dagozalako. Autobus txiki bat dago Ugaotik etorri eta Igorreraino doana, han, buelta egin eta honantza dator barriro.

Batzartu egin beharko gara Foru Aldundiagaz urtenbide bat topatzeko; ze ez badago komunikaziorik jentea ez da mobiduten, jentea ez doa eta ez dator. Edo mobiduteko kotxea erabili beharko dau bai ala bai. Hemen etxe gehienetan kotxe bi dagoz, beharrezkoa dalako.

Arratiara ezin da oinez edo bizikletaz joan eta Ugaorantza... kaminotik. Ermitabarritik gorantz bidegorri moduko bat badago, baina beheantza ez. Emoten dau leku batzuetan egin daitekezala bidegorri zati batzuk eta badago intenzioa begiratudeteko ze zatitan egin ahal dan. Baina begiratu beharko da lehenengotik eta azertu.

Garraio publikoa txarto daukagu eta hori hobetu behar da: ordutegia zabaldu behar da, Ugaora eta Artearako autobusen ordutegia behintzat; ze galdu

egiten badozu autobusa ez dago besterik, lau ordutan. Gainera, hemen edadeko jentea dago, egoitza bat be badaukagu eta gatxa da hara joan-etorria egitea kotxe barik. Horrek gauzak konpuntu euki behar dira.

Etzea alokatzea be ez da erraza Zeberion.

Alokatzeko ez dago etxe asko. Dagozanak partikularrik dira eta partikular batez udalak egin ahal dau bitartekari, baina ezin da larregi sartu. Etxeak egon badagoz, etxe asko dago hutsik, baina zaharrak dira. Eta horrek esan gura dau inbersino handia egin behar dala konpunduteko. Base-riak dira asko eta 200.000 edo 300.000 euro sartu behar badoz inbersino baten... eskapau egiten jatzu. Hori da daukagun arazoa etxeakaz, ez dagozala saltzeko moduan, etxe huts piloa dago jausteko moduan.

Eta eskaria badago? Jentek gura dau Zeberion bizi? Gazte askok alde egingo dabe beste nonon topau dabelako beharra, baina badago joera bat urietatik herrietara biziten etortekoa, ezta?

Bai, demanda badago, bai; eta pandemiatik honantza, handia. Alokatzeko dagozan etxeak edo saltzeko, baina biziten sartzeko moduan dagozanak, danak dagoz okupata. Eta jentek eskatuten segiduten dau. Zeberio erakarria da herri lasaia dalako; hemen ez dago zaratarik, industriari jagokonean, hiru zerrategi baino ez daukaguz eta leku ikaragarri lasaia da. Baina hain herri txikia izanda be, giro ona dago, hemen plaza inguruan eta astegoinetan giroa egoten da eta jenteari hori gustetan jako. Eta gero, jakina, naturak daukan indarra. Baten batek Zeberiora etorri gura bada, da ikusi daualako ingurua, eta natura gustetan jakolako.

Kultura indartu gura dozuela be esan dozu lehen.

Bai, kultura arlo guztietan ahal bada: kontzertuak, berbaldiak... edozein kultur ekintza aberasgarria da. Horretan be beharrean gabiz.

ALBERTO INTXAURRAGA

"Aurreko legealdian amaitu barik geratu ziran gauzak amaituteko aurkeztu ginan hauteskundeetara"

Arteko alkate izaten bigarren legealdiari ekin eutsan bagilaren 17an Alberto Intxaurragak, maiatzeko udal hauteskundeak EAJ-PNVk irabazi ostean. Lau zinegotzi lortu ebezan jeltzaleek eta datozen lau urteei begira, pandemia sasoiak etendakoa eta aurreko legealdian amaitu barik geratu zana, oingoan amaituteko helburua daukie.



Alberto Intxaurraga.

Erredakzioa

Aurreko legealdian legez, EAJ-PNVk lortu dau alkatetza oingoan be. Zure bigarren legealdia izango da alkate moduan.

Bai, 2019tik nago alkate. Ni sartu aurretik, EH Bildu eta Aldatuz Herri Plataforma batu ziran eta EH Bildu egon zan 2015etik 2019ra. EH Bilduk baino bozka gehiago lortu genduzan guk, baina formazio bien batuketeak baino gutxiago.

2023ko udal hauteskundeetara alkatetzarako aurkeztu nintzan pandemia sasoiaren gauza asko parralako eta gure programako

hainbat gauza aurrera aterateko ez gendualako denporarik izan. Horreek gauzak legealdi honetan amaituteko aurkeztu nintzan.

Taldea, zutaz gainera, beste hiru zinegotzik osotuten dabe.

Bai, eta segiduten dogu bakotxak bere arloan lan egiten. Bat izan ezik beste biak aurrekoan be zinegotzi izandakoak dira. Iratxe Lezetak itxi eutsan eta bere ordeiz Jose Ignazio Ortuzar dago. Taldeko beste hirurok lehengoak gara: Gorka Beitia, Ainare Sanchez eta neu. Talde bat gara eta talde moduan egiten dogu lan, bakotxak bere arloan bere ardurak ditu baina gero komunean ipinten dogu

dana.

Legealdi honetan amaituteko asmoa daukazuen proiektuen artean Musiktoba folk museo dago, ezta? Zelan dago? Eta zeintzuk dira amaituteko dagozan beste proiektu edo lanak?

Musiktoba badoa aurrerantza, erritmo onean. Aurten amaituteko esperantzea daukagu. 2023an amaituko da obra zibila. Geratuko dira gauza batzuk baina... Atzeratu daitezke gure eskuetan ez dagozan gauza batzuk, baina hortik ibiliko da.

Gero, HAPOa, Pan Orokorra dago. Aurreko legealdian ekin geuntsan HAPOari eta aurrerapena aurkeztuko jakie herritarrei urrietan. Gauzak ondo badoaz, uste dogu legealdi honetan amaitu ahal dala.

Aldaketa handiak ekarriko ditu HAPO barriak?

Etxebizitzak dirala-ta, lehengo plan orokorraren aldean bajatu egingo da etxebizitza kopurua, lehen egoana ez dalako garatuten. Gazteei etxebizitzak dirala-ta, urtenbide bat emon gura deutsegu, eta ahaleginduko gara hori topatzen; izan be, udal gobernua gura dauana da gazteentzako lehenengo etxebizitza bultzatzea. Ea lortzean dogun! Plan barruan dago eta ahaleginduko gara hori garatzen!

Horrezaz gainera, HAPOaren helburuetako bat da herria konfiguratea, eta hor segiduko dogu oin arte egin doguna egiten; hau da, auzuneetan konponketak egiten eta eguneroko gauzak garatuten. Beraz, batez be hiru proiektutan sakonduko dogu: auzuneetako lanetan, herri mailan Plan Orokorrean eta Musiktoba musika museoan. Baina horreek aurrera aterako, atal asko garatu behar dira.

Energia barriztagarrien alde-tik be, gauza batzuk falta jakuz garatutea. Aurreko legealdiaren amaieran eta oingokoaren hasieran eguzki plakak ipini genduzan Kultur Etxean, Gaztelekuan eta eskolan energia garbia erabilteko. Gimnasioak eta udaletxeak be badaukiez. Eta oin gura dogu-

na egin da, komunitade energetikoa sortu, hori guztia garatuteko Arteko herritarraz.

Argiteria guztia LED sistemara pasetako proiektua be badaukagu. Europako funtsen Dus5000 dirulaguntza jaso dogu, 5.000 biztanle baino gutxiagoko herrietako dira laguntzok eta argiteria publikoa LEDera pasau eta zahartuta dagozanak barrizatzea da asmoa, gastua murrizteko eta gutxiago kutsatzeko.

Lehen aitatu dozu, etxeen kontua gazteak geratu dala baina lan be inportantea da. Lana dala-ta, Artearen baliabideetako bat Industrialdea dala esan geinke? Industriak ez dau bere momenturik onena bizi...

Bai bada Artea eta Arantzazuren baliabidea. Izan be, enpresa barriek, euren aktibidade ekonomikoaren araberako diru sarrera bat dakarre. Gainera, lehen ez egoan zonalde bat garatu da, J2 zonaldea.


Dana dala, lan aukerak diralata Errota Fundazioak errotatzen dauz. Bera arduratzen da gazteen beharrezan eta enpresen eskakizunak bateratzen Arratia mailan. Gazteentzako lana topatzeko Errota Fundazioa eta Zulaibar dira klabeak.

Atzen hogeitau urteotan, %17 hazi da Artea, bertan bizitea erakargarria dan seinale. Jente gehiago dago eta aisialdi eta kultura jarduerak ugartu egin dira asko. Zein da egiten dozun balorazioa?

Biztanleen aldetik, bai dagoala aldaketa bat, harrera proiektuari esker; baina ostantzean, aldaketea zahartu egin garala dala esango neuke. Arteak ez dauka biztanleria handirik eta ez dagoz gazte asko.

Kultura aldetik egiten dira ekintzak; bai Udalak antolatuta, baita beste erakundeek antolatuta be. Areatzaren aldean esaterako, Artea ez da hainbesteko partaide-tza ikusten, ez dago hainbeste jente eta. Baina hor dagoz aha-legendak, eta ekintzak, Artearen neurrian egiten dira.

Batez be hiru proiektutan sakonduko dogu: auzuneetako lanetan, herri mailan Plan Orokorrean eta Musiktoba musika museoan. Baina horreek aurrera aterako, atal asko garatu behar dira



MERKARTEA 2023

HERRI BAT MERKATU BAT

IRAILAK 16

EGITARAUA

- 10:00-15:00: **MERKARTEA AZOKA**
- 12:00-14:00: **PHOTOCALL**
(Baserritarrez jantzita datozenentzako)
- 18:00: **"TABERNA IBILTARIA" HERRITIK**
- 21:00: **KUTTUNE FOLK TALDEAREN IKUSKIZUNA**
- 23:30: **ERROMERIE: BIDEAN**

Arrebaso Herri Heziketa

Gure ikastetxeak

Euskalduna kalitatezkoa herrikoia

| | |
|---|---|
| JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea |
| Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima | Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre |
| Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio | Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza |
| Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri | I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre |



TREBAKUNTZA DIGITALA



ONLINE KOMUNIKAZIOAK – I

8 ordu

- Senide eta lagunekin nahiz administrazioarekin komunikatzeko bideak. Nola komunikatu modu seguruan
- Whatsapp eta Telegram
- Posta elektronikoa

ONLINE KOMUNIKAZIOAK – II

8 ordu

- Sare sozialak
- Bideokonferentziak

ONLINE KUDEAKETAK

- Banku elektronikoa: Segurtasuna
- Osakidetza: Aurretiko hitzordua eta osasun-karpeta eskatu
- Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza: Bakq lortu eta izapideak egin
- Udala

6 ordu

Ikastaroak URRIAN eta AZAROAN emango dira, egunean 2 orduko saioetan 55 urtetik gorakoek izango dute lehentasuna.

Izena ematea, irailaren 1etik aurrera. Deitu eta informazioa emango dizugu !!

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU

GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

EUSSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 94 673 02 51
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: info@fpzornotza.com www.fpzornotza.com



40 URTEZ BASERRITARREN ZERBITZURA

MAKINEN ALOKAIRU ZERBITZUA

PENTSU MOTA EZBERDINAK ETA ANIMALIENTZAKO PRODUKTUAK

BASERRIRAKO ETA ORTURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA



ARBEL KOOPERATIBA ARAMAIO

WWW.ARBEL.EUS
656789589



TXIRRINDULARITZEA

Bizkaiko ziklismo eskoletako errepideko lasterketako finala jokatu da Lemoan

Lemoa Txirrindulari Elkartek eta Bizkaiko Txirrindulari Federakundeak antolatuta urri lehenengoaren 9an, Ausarten Kopa jokatu da Lemoan, eskoletako errepideko finala, aurten hirugarrenez. Bertan, 7 eta 14 urte bitarteko berrehun ume inguruk hartuko dabe parte guztira, edadearen arabera sei lasterketetan.

Erredakzioa

Lehenengo lasterketea 10:30ean jokatu dabe Haur mailako bigarreneko mutikoek. Ondoren, 11:10ean, Haur mailako nesken txandea izango da eta 11:40ean, Haur maila lehenengoko mutikoena. Kimu mailakoak hamabietatik aurrera neurtuko dira: 12:10ean, Kimu bigarren mailakoak eta 12:40ean, lehenengokoak. 13:00etan, benjaminen lasterketea izango da eta 13:15ean, zirkuituaren berrikuspena egingo dabe.

Lemoa Txirrindulari Elkartea

Hamabi urte dira Lemoa Txirrindulari Elkartea sortu zanetik. Ziklismo eskolea daukie, 14 urte artekoentzat eta edade horretatik aurrera, Igorreko AZEra (Arratiako Ziklista Elkartea) pasetan dira ziklismoan jarraitu gura daben gazteek. 70 bazkide inguru dira eta Josu Goienetxe da alkarteko presidentea.

Aurten Udalak lokala itxi deus alkarteari, udaletxe ondoan dago, lehenengo mediku etxean. "Holan jentek badaki nora jo gugaz kontaktuan ipinteko. Oin arte lokal barik egon gara" azaldu deusie BEGITURI Zuzendaritza Batzordekoek. Bizikletak gordetzeko be balio dau lokalak eta hori dala-ta, neurri desbardinatiko errepideko 14 bizikleta erosi dauz alkartek "bizikletarik euki ez eta eskolara etorri gura daben umeentzat".

Herriko enpresa eta kolaboratzaileek diruz lagunduten dabe ziklismo eskolea eta antolatuten diran lasterketak; tartean Ausarten Kopa.



urten eta inguruko ibilbideetatik, eta apriletik aurrera ordutegia aldatu eta kilometroak gehitzen joaten gara" dinoe. Ha-ta guzti be, ez dirala abiadura handian joaten eta jentea animau gura dabe parte hartzera. "Astiro joaten gara eta 15 urtetan bagara, 15 bueltetan gara, danok batera. Mendate bat igokeran batzuk indartsuago badagoz, besteen zain geratzen dira goian. Batera urten eta batera itzuli da gure leloa".

Lemoan bizikletan ibiltea ez da erraza. Izan be, "Bediara urtekerrea oso txarra da; Zornotzara, txarra eta Igorrera, errepide barria egin dabenetik lehen baino okerrago itxi dabe".

Zikloturismoa

Alkarteko nagusiak, domekero batzean dira zikloturismoa egiteko. "Urtailetik martiara arte 50-60 kilometro egiten doguz Lemoatik



Iñaki Lejarza, Josu Goienetxe eta Kepa Larrea.

PELOTEA

Nazinoarteko Basque Country Txapelketea irabazi dau Amaia Aldaik**Erredakzioa**

Boisen (Idaho, AEB) jokatu zan garagarriaren 30ean eta dimoztarra izan zan txapelketearen lehenengo irabazlea, finalean, Olatz Arrizabalagari 22-19 irabazi ostean. Hiru Hiruburuak Torneo

txapeldun eta txapeldunordeek jokatu eben; Nora Mendizabalek, Andrea Capellanek, Olatz Arrizabalagak eta Amaia Aldaik, hain zuzen be eta Master Cup zirkuiturako puntuagarria zan.

Partiduaren hasikeratik ipini zan Aldai aurretik, baina Arrizabalagak,

hurretik jarraituten eban. Partidu erdikaldera 11-9 heldu ziran, baina Aldaik erritmoa bitu eban eta aldea atera eutsan gernikarrari, markagailua 19-12an ipinita. Baina Arrizabalagak ez eban amerik emon eta hurreratzan joan zan, tantu bakarreko aldea izan

BOLA-JOKOA

Esteban Ozerinjauregi eta Magali Beitia nagusi Zeanuriko Bola Txapelketetan

Esteban Ozerinjauregik gizonetako eta Magali Beitia andrazkoetan eskuratu dabe 2023ko Zeanuriko Bola Txapelketea.

Jon Urutxurtu

Gizonezkoen finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 11ko arrastian, San Lontzo bigarrenen, eta bertan aurtengo udan auzuneetan jokatu diran bost txapelketetako —Alzuakoa, Undurragakoa, Ipiñaburukoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen lau sailkatuek hartu eben parte. Esteban Ozerinjauregi altzuarra, jantzi eban txapela. Bigarren eta hirugarren lekuetan Luis Mari Goioaga undurragaztarra eta Bingen Beitia otzemendiztarra sailkatu ziran. 86 urteko Esteban Ozerinjauregi finalera sailkatuen arteko bolariarik beterranoena izan bazan, gazteena 12 urteko Jon Beitia altzuarra izan zan.

Aitagarrria da bola jokoa barrubarrutik bizi dauan Esteban Ozerinjauregiren kasua. 86 urte gaz eskuratu dau txapela eta urtero hutsik egin barik auzune guztie-

tako bola txapelketetan parte hartzean dau ilusino handiagaz, umetatik bizi izan dauan joko bat da-ta. Adinagaz indarra galdu badau be, goi mailako teknikea dauka eta horri esker eskuratu dau aurtengo txapela.

Magali Beitia andrazkoetan

Egun berean, baina goizean andrazkoen txapelketea jokatu zan eta Magali Beitia, 16 urteko otzemendiztarra izan zan txapela jantzi eban bolaria. Bigarren eta hirugarren lekuetan Belen Astondoa uribeztarra eta Igone Lejarza ibarguendarra sailkatu ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo hitzordua Altzuztan izango da urri lehenengoaren 30ean, San Migel jaietako egitarauaren barruan. Kofradien arteko taldekako txapelketea jokatu da: udalerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte, talde bakoitza lau bolari osotuta.



Esteban Ozerinjauregi 86 urteko altzuarra bola jaurtitzen.

arte: 20-19an. Atzen tantu biak dimoztarrentzat izan ziran eta berak jantzi eban txapela.

Udako torneo jokoa

Udako Master Laboral Kutxa torneo jokatu zan dabil pelotari dimoztarra, Uxue Osés bikoteki-deagaz. Lehen fasearen ekuadore pasauta, hiru bikote dagoz bardinduta lehen postuan Aldai-Osés, Arrizabalaga-Galdeano eta Etxegarai-Gaminde. Oin arteko atzen partidua abuztuaren 18an jokatu eben Zarautzen Aldaik eta Osés, Olatz Arrizabalaga

eta Arrate Bergararen kontra, eta 22-14 irabazi eben. Finala urri lehenengoaren 29an jokatu da Hondarribian.



Amaia Aldai Boisen.

MENDI MARTXEA

Izena aurretik eta *online* emon behar da Areatzako Mendi Martxarako

Areatzako mendi martxaren 10. edizioan parte hartzeako ezin da izena egun berean emon, aldez aurretik emon behar da *areatzakomartxa.blogspot.com* webgunean hilaren 21a baino lehen. Mendi martxea urri lehenengoaren 30ean izango da eta egun horretan partaide guztiak plazatik pasau behar dira 07:00ak eta 07:45 bitartean. Martxearen ibilbidea lehen erabilten ziran Areatzako bideetatik pasauko da.

Erredakzioa

Dana dala, ibilbide bi dagoz aukeran; bata laburragoa, 21 kilometro eta 1.000 metroko desnibelduna, eta bestea, luzeagoa, 29 kilometro eta 1.800 metroko desnibela daukana. Martxa luzea egiteko 08:00retan urtengo dira partaideak plazatik; laburra egin gura dabena barriz, Bikozgenetik. Bikozganera joateko autobusa eskolatatik urtengo da 08:00retan. Ha-ta guzti be, markauta egongo da autobusa non hartu.

Egun osoko jaia

Martxearen ostean, hamargarren urtea dala ospatuteko jaia

egongo da herrian Beerllarok eta Zaztaparrak Asti Taldeak antolatuta. Zaztaparretako taldekide batek botako dau txupina 10:30ean, jaiari hasikerea emoteko. 12:30ean, Oktoberfest, garagardaoaren jaia, hasiko da Beerllarok antolatuta eta 13:30ean, Dirty Old Band taldeak kontzertua eskainiko dau. Herri bazkaria egongo da gero. Arrastian, 18:00etan Orkresta elektrotarangeak animauko dau giroa; 20:00etan, I. Beerllarofest Kupel Jaurtiketa Txapelketa egongo da eta amaituteko, 21:30ean, Beranduegi taldeagaz erromeria egongo da eta gero, dj batek ipiniko dau musikea.

MENDI MARTXEA

Zeanuriko Ermiten XXXIV. Mendi Martxea urri lehenengoaren 2an izango da

Urri lehenengoaren 2an, zapatuan, izango da Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea. Aurtengoagaz hogeta hamalagarren urtea beteko dau 1988an jaio zan eta klasiko bihurtu dan oinezko martxa honek.

Jon Urutxurtu

Orduan antolatu eban lehen aldiz Joko Alai Alkarteko mendi sailak eta ordutik hona —pandemiaren garaian izan ezik— hutsik egin barik eutsi deusie zanuriztarrek urteroko hitzorduari.

Helburuak hasikerako berberak dira: zapatu goiza natureagaz harremanetan eta kirola eginez igarotea, eta herritarrei zein kanpotarrei Zeanuriko inguru zabalak eta ermiten ondarea ezetuten emotea. Ez dira gitxi, izan be, herri honetan sakabanatuta dagozan ermita edota eleizak, guztira hogei.

Izen-emotea goizeko 07:00retatik aurrera zabalik egongo da herriko plazan eta urtekerea 07:30ean izango da; ibilbide osoa egiten dabeneke 35 bat kilometro beteko dabez. Plazatik abiatuz, San Isidro ondotik igaroz, hasiko dabe martxea parte hartzaileek, eta hemeretzi ermita edota eleizaren ondotik igaroko dira, aurtan be Egiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena kanpo geratuko da eta. Umeek edota fisikoki prestatuta ez dagozanek beste ibilbide biren artean aukeratu ahal izango dabe: bata, ibilbide ertaina, 25 kilometrokoa eta bestea, laburra, 13 kilometrokoa.

Amaitzerakoan, ibilbide luzea zein ertaina zein laburra bete eta gero, ziur ziteari erantzuteak merezi izango deusielako ibiltariei, Zeanuriko ondare erlijiosoa ezetuteaz gainera, sasoi honetan natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukera ezin hobea eskainiko deusielako Zeanuriko Ermiten XXXIV. Mendiko Martxeak.

Zehetasunak

Eguna: urri lehenengoaren 2a.

Izen-emotea: 07:00retatik aurrera, herriko plazan.

Urtekerea: 07:30ean, herriko plazan. Ibilbide luzea: 35 kilometro inguru. Ibilbide ertaina: 25 kilometro inguru. Ibilbide laburra: 13 kilometro inguru.

Jan-edana: hiru lekutan bananduko da: Altzuan, Ipiñaburun eta San Blasén.

Informazio gehiagorako deitu 634 430 543 (Gorka) telefonora edo idatzi *jokoalari@gmail.com* helbidera.



Altzuetako San Migel.

LASTO JASOTZE

Lasto jasotzearen Euskal Herriko hamabigarren txapela jantzi eban Tubik

Erredakzioa

Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarrak abuztuaren 6an jokatu eban Berangoko jaietan Euskal Herriko Lasto Jasotze Txapelketa beste probalari batzuek eta faboritok zanak irabazi eban. Holan, "Tubik" hamabigarrenez ekarri eban Dimara Euskal Herriko txapela.

Probea, minutu bitan 45 kilogramoko fardoari jasoaldiak egitea zan eta dimoztarrak egin ebazan gehien, hogeta hiru. Ostetik, Beñat Amadek hogeta bi, Jon Loiolak arratiarrak hogei eta Oier Gonzalezek 19 egin ebezan.



Tubi eta Loiola.

BREAK DANCE

Break dance eta jantza garaikidea Igorren

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 15ean, 19:00etan, *Beethoven b-boy* ikuskizuna eskainiko dau Igorrek Goiko Plazako frontoian, musika klasikoa eta break dance-a fusionauta.

Beethovenen musikea baino ez da entzuten ikuskizunean: batzuetan piano bakar-saioa, bestetan pianoa eta dj-a aldi berean eta bestetan perkusioa. Jantzak, b-boys edo b-girls deritzenak, pianoaren akordeak jarraituz jantzatzen dira, dj-aren erritmoan, biak aldi berean edo perkusioaren erritmoa jarraituz. Dekoratuak, eszenografia birtualek, eta testu proiektatuek osotuten dabe ikuskizuna.

B-boy edo b-girl, Kool Herc dj-ak break dance jantzatzen daben personak izentatzeko erabilitako jatorrizko izena da. Jantza sozia-

la eta kaletarra da. 1970eko hamarkadan, New Yorken hip-hop kultura sortu zanean, kaleko festak antolatzen ziran Brooklynen eta Bronxen, eta jai hareetan, txandakako jantza ikuskizunak antolatzen ziran, bandek euren liskarrak ebazteko. Gazte askok auzoko festa honeetan euren bizimodutik iges egiteko modu bat topau eben eta hortik azpikultura bat sortu zan. Horren espiritua jasoten dau *Beethoven b-boy* ikuskizunak.



MERKARTEA

Kuttune folk taldea egongo da Artean

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 16an, 21:00etan, Kuttune folk fusino taldeak kontzertua eskainiko dau Artean.

Taldea hamar musikari eta ikerlarik osotuten dabe. Musika tradizionala ikuspuntu barriagaz landuten dau, gure tradizio eta folklorea beste kultura batzuetako tradizioa eta folkloreegag lotuz. Kuttunek disko bat dauka kalean, *Hauxe da* (2022) izenekoa, ikerketa sakon baten ostean egindakoa.

Taldekakoak

Honeek dira Kuttune taldea osotuten daben musikariak: Nerea Quincoces, proiektuaren zuzendaria, perkusionistea eta ahotsetako bat; Jon Andoni Perez perku-

sino afrikarrean aditua; Aritz Mugartegi, Mediterraneoko hari tinkatutako instrumentuetan zein iberiar peninsulako perkusioa tradizionalean aditua eta Kuttuneren beste ahotsetako bat; Amaia Arrieta, abeslaria eta musika estilo desbardinetan aditua; Irene Gil, flauta-jolea, musika klasikoan aditua; Pablo Dávila, klarinetistea eta albokaria, musika klasikoan aditua eta haizezko instrumentu tradizionalen ikertzailea; Aingeru Torre, saxofoi-jolea, jazz arloan aditua; Jordi Arcusa, baju-jolea izateaz gainera, jazz musikan aditua da eta musika tradizionala ikertzen dau; Tania Loza, piano-jolea, eta musika klasikoan aditua eta Pablo Bueno, gitarrak-jolea, musika estilo guztietan ibilitakoa: rock, folk zein klasikoak.



IKASTAROAK

Lemoako A eta B taldeetako ikastaroetan izena emoteko epea zabaldu da

Erredakzioa

Lemoako ikastaroetan izena emoteko epe desbardinak dagoz eta epe horreen arabera sailkatu dira ikastarook A eta B taldeetan. A taldeko ikastaroetan izen-emotea urri lehenengoaren 4tik 17ra bitartekoa da eta B taldean, izen-emotea urri lehenengoaren 1etik 30era artekoa da.

Urri lehenengoaren 4tik 17ra hurrengo ikastaroetan emon daiteke izena: *Ginekologia naturala eta sexu ahalduzkoa I eta II*, *Gizotasun berriak parekidetasunerantz pausoka*, *Emakumeak elkarrekin hazteko espazioa*, *Musika familian*, *Umeen irakurle taldea*, *Argazkigintza digitala*, *Informatika*, *Eskulanak*, *Death Cafe* eta *Teknologia berriak pertsona nagusientzat*. Hilaren 30era arte barriz, euskera ikastaroetarako emon daiteke izena; hau da, *Euskara eskolak*, *Euskara merkatarientzat* eta *Pertsona migrauentzat euskara* ikastaroetarako. D taldea beste 5 ikastarok osotuten dabe, baina eurretan

parte hartzeako izen-emotea abenduan izango da.

Izen-emoteak online egin behar dira

Izen-emoteak udal webgunean egingo dira eta Lemoan errol-datutakoek lehentasuna izango dabe. Leku kopurua baino persona gehiagok izena emon ezker, zozketea egingo da eskatzaile guztien artean. Taldea sortzeako kopuru minimoa ateraten ez



DIMETAL

Oihana Bartra eta Paule Loizaga bertsolariek botako ditue "metalbertsoak" Dimetal jaialdian



Erredakzioa

Dimetal Fest-ek, Dimako heavy metal jaialdiak, kontzertuetan euskal metalaren panorama erakusteaz gainera, euskal kultura eta heavy metalaren azpikultura batzean ditu hainbat jardueraren bidez. Eurretako bat, "metalbertso" deitu daben saioa da. Holan, urri lehenengoaren

30ean, zapatuan, bazkalostean, Kapi Guarrenetxearen (Porco Barvo, OST eta Unholy Covers) gitarra solo batez lagunduta, Oihana Bartra eta Paule Loizaga bertsolariek bertsoak botako ditue, estilo honetako musikari lotutako gaiak jorratuz. Ibon Izak egingo ditu gai-emoile beharrak.

Ez da izango eguneko jarduera kultural bakarria. Aurretik, goi-

bada barriz, ikastaroa bertan behar geratuko da.

Kirol ikastaroak

Lemoako kiroldegiko eskaintza erabili ahal izateko, modu bi bereizten dira. Hilekoa izeneko zerbitzuan izen-emotea urri lehenengoaren 11n zabalduko da eta 24ra arte luzatuko da. Astean ikastaro bereko saio bitara joateko aukerea emoten dau. Lemoan errol-datuek lehentasuna izango dabe.

Aukeran zerbitzua abonatuentzako da, eta hilean 15 euro ordainduta, astean 5 saio desbardineta joateko aukerea dago. Jardueretako plaza erreserbak aplikazio baten bitartez egin behar dira.

Pilates, *Yoga*, *Eskalada eskolak*, *Entrenamendu funtzionala* edo *Haurdunaldi aktiboa* dira kiroldegian egin daitezkean ikastaro edota jarduera batzuk.

zako 11:00etan, mahai-inguru baten landuko da metal jaialdien egungo egoerea; izan be, atzen urteotan, jaialdietako entzuleen ohiturak aldatu egin dira eta jaialdi handiak beteten diran bitartean, herrietako jaialdi autogestionatukoak hustuz doaz. Gaiaren gaineko hausnarketea egiteko hainbat aditu egongo dira; tartean, Alma Culter taldeko Marilu Gonzalez Tudanca. Betiko moduan, Dani Alvarez EITBko kazetaria da moderatzaile lanak egitekoa.

Bazkaria

Giro lasai eta informalean musikariakaz berba egiteko aukerea izango dabe herritarrek eta kanpotik etorritakoek herri bazkarian. Txartelak alde aurretik erosi behar dira 15 euroan eta menu bi dagoz aukeran: arrunta edo beganoa. Ensaladea, paellea eta edaria dagoz prezioaren barruan.

ERAKUSKETEAK

Diziplina ugariko artisten lanen erakusketea Artean

Erredakzioa

Arratiako hamalau artisten lanak egongo dira ikusgai Arteako Kultur Etxean, hilaren 5etik 10era eta 16an. Diziplinak be ugarri dira: pintura, eskultura, zermikea, zidargintza, aerografia, musika tresnak eta argazkigintza.

Erakusketea, urri lehenengoaren 5ean, 20:00etan, inauguratu da eta hilaren 7, 8 eta 10ean, 18:00etatik 21:00etara egongo da ikusgai; hilaren 9an eta 16an, barriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara Kultur Etxeko lehenengo solairuan.

IKASTAROAK

Areatzak eta Bediak ikastaro eskaintzea aurkeztu dabe

Erredakzioa

Dozena bat ikastaro desbardinek osotuten dabe Areatzak Udalarren 2023-2024 ikasturterako eskaintzea. Bediako Udalak barriz, ikasturte osoko hamabost ikastaro eskaintzen ditu.

Areatza

Ariketa fisikoa eta eskulanetako arloko ikastaroak dira batez be Areatzakoak, eta aurtan, lehenengoz, Zunba egongo da aukeren artean. *Crossfit, Zunba, Spinning, Pilates, Mantenimentu gimnasia, Luzaketak, Yoga, Eskulanak, Puntua eta kakorratza, Ehoziri lanak, Joskintza* eta *Euskal jantzak* eskaintzen dira 2023-2024 ikasturterako.

Ikastarook urri bigarrenian hasi eta bagilean amaituko dira eta izena udaletxean emon daiteke urri lehenengoaren 11tik 22ra, goizeko 08:00etatik 15:00etarako ordutegian; astelehenetan baita arrastiko 15:30etik 17:30era be. Izena online emon teko aukerea be badago <https://forms.gle/75msjFDQwNQ1x2x66> estekan. Ikastaroa aurrera ateratzen daiten, gitxienez 10 persona apuntatu behar dira. Areatzan errolatutakoak lehenengoaren emongo jakie eta gehieneko ko-

purua baino jente gehiago apuntetan bada, zozketa bidez egingo da parte hartuko dabenen aukeraketea.

Prezioari jagokonean, barriz, Euskal jantzak doban dira; astean ordu eta erdiko ikastaroek, 80 euroko prezioa daukie eta astean ordu bi eta erdikoek, 110 eurokoa. Ikastaroan onartutakoan erdia ordaindu behar da eta beste erdia abenduan.

Bedia

Bediako 2023-2024 ikasturterako eskaintzea, *Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Koroa, Euskal dantzak, Jauziri Dantza Taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Eskulanak, Gimnasia erritmikoa, Zunba, Mantenu-soinketa maila aurreratu, Memoria kognitiboa, Aikido* eta *Saltsa* ikastaroek osotuten dabe. Ikastaro bakoitzean gitxienezko taldea osatu behar da aurrera aterateko. Prezioak, ikasturte osorako 45 euro eta 210 euro bitartean dagoz.

Izena emon teko epea urri lehenengoaren 5ean zabalduko da eta 19ra arte egongo da zabalik. Izena liburutegian emon behar da 16:30etik 19:30erako ordutegian. Ikastaroak urri bigarrenian hasi eta maiatzaren amaiera artekoak izango dira

AUZOLANDEGIAK

Auzolandegietan lubakiak errekueretako egindako lana bikaintzat jo dau Lemoako alkateak

Espainiako hainbat lurraldetatik etorritako 18 gazte, 18 eta 25 urte bitartekoak egon ziran garagarriaren 16tik 30era, 1937ko Lemoatxako batailako lubaki zati bat errekueretako beharrak egiten. Gazteek, 9 tona inguru zementu erabili izan dabe behar horretan, uda honetarako planteetan ziran lan guztia amaituta itxiz. Lubakiak desegin ez daitezkan, atzenengo teknikak erabilia, lubakietako 50 metro inguru museoalizau dabez.

Erredakzioa

Lemoatx mendira zementuzko zakuak igon eta hortik, eskuan edo eskorgeagaz, lubakietara eroan behar ebezan partaideek. Gero, zementu zaku bi, handi baten sartu, lotu eta pilatu dabez trintxera formea emon teko. Lubakien garbiketea be egin dabe.

Azkar egin eben lana. "Gure balorazioa oso ona izan da. Partaideek eroan dabene abiadureagaz, oso azkar aurreratu eben egin behar ziran lana eta Aranzadiko arduradunak oso pozik egon dira gugaz" azaldu deutso BEGURI Endika Sierra Auzolandegiko begiraleetako bat. Lan hori, Auzolandegietako eta Aranzadiko begirale eta teknikarien zuzendaritzapean egin dabe gazteek.

Belaunaldi barriak eta memoria

Esther Iturrioz Lemoako alkateak be eskerrak emon deutsez Auzolandegikoei egindako lan bikainagaitik. "Oso eskertuta gagoz Auzolandegien ekimenean bidelagun doguzan Aranzadi eta Jaurleari. Talde polita hartu genduan Lemoan, gustura egon ziralda esan

euskuen eta herriaz gozaten be ikusi genduzan, pasean eta pisizinetan adibidez. Lan bikaina egin dabe. Planteatutako lana amaitu eben; Lemoatxeko lubakien museolizazioa". Eta lan horren balioa be azpimarratu eban alkateak. "Guretzat inportantea da lubakiak berreskuratzea eta mantentzea

te, uste dogulako gure gizarteak behar dauala erreferentzia hori. Alde batetik omenaldi bezala, bertan askatasunaren alde burukatu ebenak gogoratzeko eta beste alde batetik memoria horrek iraun dagian; gazteenek be euki dagien Gerra Zibilean gertatu zanaren barri".



Lemoatxa.

Kili-Kili
Amopaki Puzatzen
Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
Tel: 94 673 43 81

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanakoa - Kontularitza
Askatasun 26, 1B 48143 Areatza
Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

amorrortu
taberna - jatetxea - ostaldea
OSTATUA
638 712 523
Zubiarte 1, - 48330 LEMOA - Bizkaia
www.alojamientolemoa.com
info@alojamientolemoa.com

belagorri
mediku naturalista
argaltzeko terapia
kosmetika naturala
elkagai biologikoak
zelakontzari elkagaiak
estefiziana
Zamakoia, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igarre
94 631 14 39

Olaetxe
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
Belagorri dago jabetza Belagorri dago proiektu
-Solmentan zein alorretan
Lurrik (arrokak, landak, basak...)
Etxebizitzak (puzak, baserriak, etxak...)
Gardjeak
Lanari komertzioak
Publikoak...
-Bolorazioak
Erakin berriak erakitzeko
Eneformak
AATohule-proiektuak
-Borne diseinua
-CEE eta IEE-ak
-Higitza ohikularitza
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa
arratia
INMOBILIARIA
Lemoa Agirre 22, 48330 Lemoa - Bizkaia
94 631 51 89 - 458 94 31 31
01171100009@gmail.com
www.ariatia.com
475 225 111
ariatia@ariatia.com

AGENDEA

URRI LEHENENGOAK 1
ARANTZAZU

Udal Liburutegia zabalik. 17:00etatik 19:00etara.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoietan, 09:00etatik 21:00etara.

Lamino Kirol Klubak eta Areatzako Udalak urri lehenengoaren 30erako antolatutako mendi martxarako izen-emotea zabalik dago *areatzakomartxa.blogspot.com* webgunean urri lehenengoaren 21era arte.

Uda osoan zehar, Areatza eta herriko eraikinak ezetu Parketxean dagozan audiogidak erabilita.

16:00etan, Gorbeia Gurutzea Athletic Club Peñak antolatuta, Arrabako aterpera umeakaz igo, txangoa egin eta bertan pasau gaua.

ARTEA

Arteako kultur txupina. 18:00etan, pregoia eta txupinazoa/Agurra eta Kaxarranka. Arantzarte eta Goi-Herri Dantza Taldeak; 19:00etan, kalejireia El Gran Puzzle Cozmico-gaz (Aragoiko tekno-punk); 21:00etan, alkartasun bertso-afaria; bertsolariak Amets Arzallus eta Anjel Mari Peñagarikano.

BEDIA

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserba egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

Liburutegia itxita hilaren 5era arte.

DIMA

Hilaren 7ra arte, Andraizeak antolatutako hilaren 16an Astigarraga eta Hernaniko urtekerarako izen-emotea *andraizea@gmail.com* helbidean edo 675 007 645 telefonoan. Euskal sagardoaren museora bisitatu, bazkaria sagardotegian eta ibilbide morea Hernanin. Bazkideak 25 euro, bazkide ez diranak 40 euro.

16:00etatik aurrera, Dimako automobil I. Igoera Lanzero Classic Klubak antolatuta.

20:00etan, sailduniak Oban. Txupina eta jaien hasikerea.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Hilaren 11ra arte, 09:30etik 13:30era liburutegia zabalik, mailegu zerbitzu barik.

XXIII. Arratiako Motorzaleen konzentrazioa. 18:00etan, izen-emotea (20 euro) eta hasikerea; 21:00etan, kontzertua: Lee Junior; 00:00etan, txosnaren itxiera.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

Hilaren 30era arte, *Euskara eskolak, Euskara merkatariantza eta Pertsona migratuentzat euskara* ikastaroetan izena emon daiteke *www.lemoa.net* udal webgunean.

Ganzabal Mendi Taldeak zementariaren 19rako antolatutako Lemoax Trailerako izen-emotea zabalik *buscamentas.com* webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte zabalik eguneroko. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO

Zeberioko jaiak hilaren 4ra arte. Ikusi programea 7. orrialdean.

Hilaren 15era arte, liburutegia udako orduetgia 11:00etatik 13:00etara.

URRI LEHENENGOAK 2
AREATZA

09:00etan, Gorbeia Gurutzea Athletic Club Peñak antolatuta, Gorbeia igoera frontoitik urtenda; 14:30ean, hildako bazkideei omenaldia Pagomakurren; 15:00etan, sagardotegi erako bazkaria Pagomakurren Trikitxotx-en eskutik; 20:30ean, Cotton Blues taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

Arteako kultur txupina. 11:00etan, orientazio proba; 13:00etan, Kuxaratas taldearen kontzertua; 17:00etan, Igel txapelketea; 18:00etan, umeentzako disko festa dj Gomigaz; 21:00etan, Cuarteto Chiveroren kontzertua, trobak eta boleroak (Nikaragua, Kuba eta Euskal Herria); 22:30ean, Arteako Foterie Band rock taldearen kontzertua.

DIMA

Sainduniak Oban. Egun osoan eskulan erakusketea txokoan; 12:00etan, mezea; 20:00etatik aurrera, txitxi-burduntzia eta Bola Txapelketea dj Ismak lagunduta.

10:00etatik aurrera, Dimako automobil I. Igoera Lanzero Classic Klubak antolatuta.

IGORRE

XXIII. Arratiako Motorzaleen konzentrazioa. 10:00etan, izen-emotea; 11:00etan, ingurutik ibilbidea; 13:00etan, herri-kirolak; 14:00etan, bazkaria;



Baserriko porrusalda kale antzerkia dakar Zeberiora Bapatean konpainiak

Jai egitarauaren barruan, urri lehenengoaren 3an, 20:00etan, egongo da ikuskizuna ikusteko aukerea. Odei Arregik eta Isabel Cuadrado egiten ditue aktore lanak, *Baserriko porrusalda* publiko guztientzako komedian.

Sinopsia

Juliana eta Mantxo, Zure saltsan izeneko telebistako lehiaketara aurkeztu dira, lehiaketea irabazi eta euren ametsak egia bihurtzeko itxaropenagaz. Horretarako errezetarik onena aukeratu dabe: baserriko porrusaldea.

Lehiaketea atxaki, herriko plaza suete bihurtu eta suete berezi honen intimitate faltsuan bienak diran sekretu eta bildurrak aieratuko ditue. Barazki eta lapiko artean, euren nahi eta ezinak, amets eta trapu zaharrak agertuko dira. Telebistaren begi ikusiezina asetzeko ahaleginean, porrusaldearen errezeta ikuskizun bihurtu eta berau egiteko modurik harrigarriena bilatuko dabe.

17:00etan, jokoak; 18:00etan, akrobaziak: Narcis Roca; 19:30ean, parrilladea; 20:00etan, kontzertua: Stereorize eta 21:30ean, kontzertua: Lee Junior.

LEMOA

12:00etan, mezea jubiladuen etxean, ondoren barauskarria; 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena eskolako aterpean; 16:30ean, Joxe Mendizabalegaz erromeria.

ZEANURI

11:00etan, Undurragako urtegiari bueltea Gorbeialdek antolatutako ibilbide gidatua. Plazan.

URRI LEHENENGOAK 3
ARTEA

Arteako kultur txupina. 12:00etan, txotxongiloak sortzeako tailerra Golokaren eskutik; 14:00etan, Txikiren umorezko bakarrizketea *40 urte eta aldapan behera niek*.

DIMA

Sainduniak Oban. Egun osoan eskulan erakusketea txokoan; 11:30ean, Nordic Walking Dimatik Obara; 12:00etan, krosa Dimatik Obara; 14:30ean, auzo bazkaria; 19:00etan, Igel Txapelketea eta 20:00etan, txokolata.

URRI LEHENENGOAK 4
LEMOA

Hilaren 17ra arte izena emon daiteke hurrengo ikastaroetan: *Ginekologia naturala eta sexu ahalduntzea I eta II*, *Gizentasun berriak parekidetasunerantz pausoka*, *Emakumeak elkarrekin hazteko espazioa*, *Musika familiar, Umeen irakurle taldea*, *Argazkigintza digitala*, *Informatika*, *Eskulanak*, *Death Cafe* eta *Teknologia berriak pertsona nagusientzat* *www.lemoa.net* webgunean.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kultur Etxean.

URRI LEHENENGOAK 5
ARTEA

20:00etan, bertako sortzaileen lanen erakusketaren inaugurazioa. Erakusketaren orduetgia, hilaren 6, 7, 8 eta 10ean, 18:00etatik 21:00etara eta hilaren 9an eta 16an, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Kultur Etxeko lehenengo solairuan.

BEDIA

16:30ean Liburutegian eta 17:00etan Ludotekan, 2023-2024 ikasturtea hasi.

16:30etik 19:30era arte, hilaren 14ra arte, Bediako jubladu eta pensionistentzako Udalak antolatutako Doneztebera urtekerarako izen-

emotea Liburutegian. Urtekerea urri lehenengoaren 21ean izango da.

Hilaren 15era arte, hilaren 23an izango dan 40 urtetik gorako andrentzako *Bizikletaz bidaiatzen: bizipoza, bakea eta bideak gureak diralako* tailerrarako eta 12 urtetik gorakoentzako Gaztegunean apuntetako izen-emoteak, Liburutegian.

Hilaren 19ra arte, Udalak antolatutako ikastaroetarako izen-emotea. Ikastaroak: *Egurra lantzen*, *Yoga*, *Pilates*, *Koroa*, *Euskal dantzak*, *Jauziri Dantza Taldea*, *Euskara ikaste ikastaroa*, *Marrazketa*, *Eskulanak*, *Gimnasia erritmikoa*, *Zunba*, *Manteno-soinketa maila aurreratua*, *Memoria kognitiboa*, *Aikido* eta *Saltsa eta merengea*.

Hilaren 20ra arte, herrirako Gabonetako apaingarriak sortzeako tailerrarako izena emoteko epea. Tailerra urri bigarrenaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean izango da.

Hilaren 22ra arte, urri bigarrenaren 28an Thiom (Muga) bodegara joateko izen-emotea.

URRI LEHENENGOAK 7
ARTEA

Arteako jaiak hilaren 10era arte. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

URRI LEHENENGOAK 8
ARTEA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa autobus geralekuan.

BEDIA

Bedian errodututako 0-17 urte bitarteko ume eta gazteentzako urtebetetzeak ospatzeko lokalaren zerbitzua 2023-2024 ikasturtea.

LEMOA

Andra Mari jaiak. 12:00etan, mezea Andra Mari eleizan; 13:30ean, Etxebarria aita-emeak trikitilariak herritik; 17:00etan, alkartrukeko gazteek antolatutako tailerrak eta jolasak Elizondon; 19:00etan, Markelife antzerki konpainiaren *Chef Nature* ikuskizuna Kulturguneko plazan.

URRI LEHENENGOAK 9
AREATZA

20:00etan, The Half Nelsons taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARRATIA

02:30ean eta 05:00etan, Galdakaoko jaietatik Arratiara bueltetako autobusa Plazakoetxen.

LEMOA

Andra Mari jaiak. 10:30ean, Lemoa Txirindularien Elkartearen eskutik, Bizkaiko txirindularitza eskoletako Ausarten Kopa, Elizondotik; 13:00etan, poteo musikatu Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz; 15:00etan, bertso-bazkaria, bertsolariak: Nerea Ibarzabal eta Eli Pagola eta 19:00etan, poteo musikatu Taberna ibiltariagaz.

URRI LEHENENGOAK 10
DIMA

11:00etan, Antzasti Museoa bisita gidatua *Emakumea eta eguneroko bizitza*.

URRI LEHENENGOAK 11
AREATZA

08:00retatik 15:00etara, hilaren 22ra arte, eta baita 15:30etik 17:30era, 11n eta 18an, udal ikastaroetan izena emoteko epea udaletxean edo esteka honetan: <https://forms.gle/75msjFDQwNQ1x2x66>.

Ikastaroak: *Eskulanak*, *Crossfit*, *Zunba*, *Spinning*, *Pilates*, *Mantenimendu gimnasia*, *Puntua eta kakorratza*, *Euskal dantzak*, *Ehaziri lanak*, *Joskintza*, *Luzaketak* eta *Yoga*.

LEMOA

Hilaren 24ra arte, kiroldegiko ikastaroetarako hileko zerbitzuan izena emoteko epea zabalik.

URRI LEHENENGOAK 12
IGORRE

Liburutegia zabalik astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta barikuetan 09:30etik 13:30era.

URRI LEHENENGOAK 15
IGORRE

19:00etan, Beethoven B-Boy Break Dance eta jantza garaikidea Goiko Plazako frontoian.

URRI LEHENENGOAK 16
AREATZA

20:00etan, The Confluence taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

10:00etatik 15:00etara, Merkatea Azokea; 12:00etatik 14:00etara, *photocall-a* baserritar jantzita doazentzatzat; 18:00etan, kalejireia Taberna ibiltariagaz herritik; 21:00etan, Kuttune folk taldearen ikuskizuna eta 23:30ean, erromeria Bidean taldeagaz.

ARRATIA

02:30ean eta 05:00etan, Galdakaoko jaietatik Arratiarako autobusa Plazakoetxen.

DIMA

09:00etan, Andraizeak antolatuta, Astigarraga eta Hernanira txangoa. Euskal sagardoaren museora bisitatu; Alorrenea sagardotegian bazkaria eta ibilbide morea Hernanin. Plazan.

IGORRE

Inbiu Eguna. 12:00etan, *Garbijaia*, umeentzako antzerki animazioa: 15:00etan, herri bazkaria eta ostean, jantzialdia Eingo taldeagaz.

UBIDE

Areatzako Parketxeak antolatuta, Ubidetik Oketara mendi ibilaldia iluntzean. Izena aldeztu aurretik emon *gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus* helbidean edo 94 673 92 79 telefonoan.

URRI LEHENENGOAK 17
BEDIA

Kotxe bako eguna. 11:00etan, Bediatik zehar ibilbidea bizikletan (kaskoa beharrezkoa da); 12:00etan, parte hartzaile guztien artean zozketea eta 12:00etatik 14:00etara, monoziklo eta segway zirkuitua.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Oroitze Eguna. Besaide (555 m).



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabarru auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

TXAKURRAK EMOTEN DODAZ

Hiru ehiza txakur daukadaz emoteko. Hilebete bi daukiez. Igorreko Agarreko baserrian dagoz. Interesdunek deitu: 661 259 002.

LANA

PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272 (Sagrario) telefonora.

GITARRA KLASIAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

Zeozter saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1

Garena txakolinaren 3 botila.

Juanma Labandibar (Artea)



2

Kristonak taldeak emondako materiala.

Puri Barrenetxea (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
-
SABINO ARANA 38
IGORRE
-
Tlf. 94 631 92 00

ASEGURUAK: ZUZENBIDE
AUTOAK ETXEBIZITZAK
-
AHOHKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
-
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Tlf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

begitu
eus

ORTOMOBILITY

Zure mugikortasuna hobetuz
Bizkaiko esposizio handiena, zugandik gertu!

- SALMENTA ETA ESPOSIZIOA
- ZERBITZU TEKNIKOA
- TAILERRA
- ETXERAKO ZERBITZUA

%5eko deskontua
ORTOMOBILITY

Txartel hau moztuta ekarri eta %5eko deskontua edukiko duzu, dendako edozein artikulutan, lehenengo erosketan.




www.ortomobility.com
info@ortomobility.com
Mendieta 1 Lemoa BIZKAIA
946 738 203

begitu **20** urte

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:
Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.